



# ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUDIA

DOLORES IBARRURI BHI

014010

ABANTO-ZIERBENA



## HISTORIKOA:

Proposamenaren aurkezpena .....	2010-12-01
Behin-behineko proposameneko klaustroaren onarpena .....	2011-03-01
Klaustroaren onarpena .....	2011-04-13
OOGren onarpena .....	2011-05-03
01. berrikuspena	
Klaustroaren onarpena.....	2012-01-11
OOGren onarpena.....	2012-01-25
02. berrikuspena	
Klaustroaren onarpena.....	2013-06-05
OOGren onarpena.....	2013-10-30
03. berrikuspena	
Klaustroaren onarpena.....	2014-06-11
OOGren onarpena.....	2014-06-11
04. berrikuspena	
Klaustroaren onarpena.....	2018-04-25
OOGren onarpena.....	2018-04-25
05. berrikuspena	
Klaustroaren onarpena.....	2019-05-29
OOGren onarpena.....	2019-05-29

## AURKIBIDEA

Orrialdea

ATARIKO TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.....	1
I. TITULUA. DOLORES IBARRURI BHIko ANTOLAMENDUA.....	1
I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.....	1
II. KAPITULUA. TALDEKO AGINTE-ORGANOAK.....	2
I. ATALA. DOLORES IBARRURI BHIko OOG .....	2
II. ATALA. IRAKASLEEN KLAUSTROA.....	4
III. ATALA. ZUZENDARITZA TALDEA.....	5
III. KAPITULUA. PERTSONA BAKARREKO AGINTE-ORGANOAK .....	6
IV. KAPITULUA. KOORDINAZIO DIDAKTIKORAKO ORGANOAK .....	7
I. ATALA. KOORDINAZIO PEDAGOGIKORAKO BATZORDEA.....	7
II. ATALA. DEPARTAMENTU DIDAKTIKOAK .....	7
III. ATALA. ORIENTABIDE DEPARTAMENTUA .....	8
IV. ATALA. DEPARTAMENTUKO BURUEN BATZORDEA .....	9
V. ATALA. TUTORETZAK ETA TALDEKO IRAKASLE-TALDEAK.....	10
VI. ATALA. ETAPAKO KOORDINATZAILEAK .....	11
V. KAPITULUA. PARTAIDETZA-ORGANO BEREZIAK .....	11
I. ATALA. IKASLEEK PARTE HARTZEKO ORGANO BEREZIAK .....	11
II. ATALA. GURASOEN BATZARRA, IKASLEEN GURASO-ELKARTEAK ETA IKASLE ELKARTEAK.....	14
II. TITULUA. ZENTROAREN KUDEAKETA ETA HEZKUNTZA-JARDUERAREN MARKOA...	15
I. KAPITULUA. DOLORES IBARRURI BHIren KUDEAKETA.....	15
I. ATALA. IKASKETEN ANTOLAMENDURAKO ETA KOORDINAZIORAKO BALIABIDEAK..	15
II. ATALA. IKASKETEN PLANGINTZARAKO BALIABIDEAK .....	16
II KAPITULUA. HEZKUNTZA-JARDUERAREN MARKOA .....	21
III. KAPITULUA. ESKOLA-ZERBITZUAK .....	23
III. TITULUA. ERRENDIMENDU AKADEMIKOAREN EBALUAZIO OBJEKTIBOA .....	24
IV. TITULUA .BIZIKIDETZA ARAUTZEA .....	28
I. KAPITULUA. PRINTZIPIO OROKORRAK.....	28
II. KAPITULUA. IKASLEEN ESKUBIDEAK BETETZEKO BERMEA .....	28
III. KAPITULUA. BETEBEHARRAK BETETZEKO BERMEAK.....	31

IV. KAPITULUA. BIZIKIDETZA BEHATOKIA.....	33
V. KAPITULUA. BIZIKIDETZA ARAUAK .....	34

## ATARIKO TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

### **1. artikulua. DOLORES IBARRURI BHIren izendapena, irakaskuntzak eta ezaugarriak**

1. DOLORES IBARRURI BHI ikastetxe publikoa da. Bertan, honako hauek ematen dira: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH), Batxilergoa eta Lanbide Heziketa (LH). Goian aipaturiko ikastetxea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mende dago. Ikastetxe horrek, hartara, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezarritako planeamenduari jarraiki ematen ditu, ikasturtez ikasturte, bere ikasketak.

2. Euskal Eskola Publikoaren Legeko (EEPLko) 3.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, DOLORES IBARRURI BHIk ezaugarri hauek ditu: euskal gizartearen beharrak ase ditu, inguru sozial eta kulturalean sustraiturik dago, parte hartzailea da, desberdintasunak orekatzen ditu, aniztasuna zaintzen du, hezkidetzaz arduratzen da, plurala da, elebiduna da eta demokratikoa da.

3. DOLORES IBARRURI BHIk bere egin ditu EEPLko 3.2. artikuluan ezarri diren xedeak. Ikastetxe horretako gobernu-organo, partaidetza-organo eta koordinazio didaktikorako organo guztiek, irakasleek eta irakasleak ez diren ikastetxeko langile guztiek goian aipaturiko helburuak betetzera bideratuko dute beren jarduna.

4. DOLORES IBARRURI BHIk zentroaren kudeaketa eta antolakuntzaren erantzukizuna bere gain hartzen du bere xedeak lortzea bermatzeko.

5. DOLORES IBARRURI BHIk, bere xedeak betetzeko, ikasleen hezkuntza-gaitasunen garapen-graduaren ebaluazio objektiboaren bermea hartzen du bere gain.

6. DOLORES IBARRURI BHIk, ikastetxeko bizikidetzaren oinarri gisa, bere eskubideak arduraz bete eta gainerakoen eskubideak errespetatuko dituela agintzen du.

## I. TITULUA. DOLORES IBARRURI BHIko ANTOLAMENDUA

### **I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK**

#### **2. artikulua. Aginte-organoak**

DOLORES IBARRURI BHIk EEPLn aurreikusi diren taldeko aginte-organoak nahiz lagun bakarreko aginte-organoak izango ditu. Organo, horiek EEPLn ezarritako eskumenak eta eskuduntzak izango dituzte.

a) Taldekoak: Ordezkaritza Organo Gorena (OOG), irakasleen klaustroa eta zuzendaritza-taldea.

b) Lagun bakarrekoak: zuzendaritza, ikasketaburutza, ikasketaburutza-ondokoa, idazkaritza akademikoa eta idazkaritza-orde akademikoa.

#### **3. artikulua. Koordinazio didaktikorako organoak**

Koordinazio pedagogikorako batzordea, departamentu didaktikoak eta orientabide-departamentua, departamentuko buruen batzordea, tutoreak, taldeko irakasle-taldeak eta etapako koordinatzaileak DOLORES IBARRURI BHIko koordinazio didaktikorako organoak izango dira.

#### **4. artikulua. Hezkuntza-komunitatearen partaidetza**

1. OOGren bidez, ikasleek, ikasleen gurasoek, irakasleek, administrazioko langileek, zerbitzuetako langileek eta Udalek DOLORES IBARRURI BHIren kudeaketan parte har dezakete.
2. Badira DOLORES IBARRURI BHIren jardunean parte hartuko duten beste organo espezifiko batzuk. EEPLn zehaztutakoari jarraiki, gurasoen batzarrak, guraso-elkarteek eta ikasleen parte hartze-organoek mintzagai dugun ikastetxearen kudeaketan parte hartuko dute.
3. DOLORES IBARRURI BHI ikastetxeko ikasle- nahiz guraso-elkarteen egoitza izango da. Ikastetxeak, hartara, lokalak utziko dizkie elkarte horiei haien jarduera gauzatu dezaten. Horrez gain, elkarteek ikastetxearen bizitzan parte hartzea sustatuko du ikastetxeak. Horretarako, hezkuntza-jarduerak, jarduera kulturalak eta kirol-jarduerak bultzatuko ditu.

#### **5. artikulua. Aginte-organoen, partaidetza-organoen eta koordinazio didaktikorako organoen jardunaren oinarriak**

1. Ikastetxeko aginte-organoek, partaidetza-organoek eta koordinazio didaktikorako organoek zainduko dute ikastetxeko jarduerak EEPLn jaso diren printzipio eta balioei jarraiki gauzatzen direla. Aipatu berri ditugun organoek, halaber, EEPLn nahiz indarrean dauden xedapenetan ezarri diren hezkuntzako xedeak egoki betetzen direla zainduko dute, baita hezkuntzaren kalitatea ere.
2. Horrez gain, aginte-organoek, partaidetza-organoek eta koordinazio didaktikorako organoek bermatuko dute, bakoitza bere eskumen-esparruan, ikasleen, irakasleen, gurasoen eta administrazioko nahiz zerbitzuetako langileen eskubideak betetzen direla. Era berean, organo horiek guztiek aipatu berri ditugun eragileek beren betebeharrak betetzen dituzten ikuskatuko dute.
3. Mintzagai ditugun organoek, bestetik, beren gain hartuko dute hezkuntza-komunitateko kide guztiek ikastetxeko bizitzan, ikastetxearen kudeaketan eta ikastetxearen ebaluaketan eraginkortasunez parte hartuko dutela bermatzeko ardura.

## **II. KAPITULUA. TALDEKO AGINTE-ORGANOAK**

### **I. ATALA. DOLORES IBARRURI BHIko OOG**

#### **6. artikulua. DOLORES IBARRURI BHIko OOGren ezaugarriak eta osaera**

1. DOLORES IBARRURI BHIko OOGren bidez, hezkuntza-komunitateko kide guztiek hartuko dute parte ikastetxearen kudeaketan.

2. OOGren eskumenak.

DOLORES IBARRURI BHIko OOGk EEPLko 31. artikuluan aitor zaizkion eskuduntzak ditu.

3. DOLORES IBARRURI BHIko OOG ondoko hauek osatuko dute: (EEPL 32.2)

- a) Zuzendaria, OOGko burua izango dena.
- b) Ikasketaburua.
- c) Klaustroak aukeratuko dituen hamar irakasle.
- d) Ikasleen gurasoen zazpi ordezkari.
- e) Ikasleen zortzi ordezkari.
- f) Administrazioko eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat.

g) Abanto-Zierbenako Udaleko ordezkari bat.

h) Ikastetxeko idazkaria. OOGko idazkaria izango da. Hitza izango du, baina botorik ez.

## **7. artikulua.-OOG hautestea eta berritzea**

1. Bi urtetan behin, OOGko kideen erdiak berrituko dira. Berritze hori txandaka gauzatuko da, halaxe ezarri baita OOGak arautzen dituen Dekretuan eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak argitaratu dituen deialdian.

2. Irakasleen ordezkarien berriztatzea ezarritako prozedurari jarraituz egingo da. Berriztatzerako hautagaitzarik ez aurkeztekotan hurrengo erara bideratuko da hautaketa:

a) Hasiera batean OOG kideak ez diren klaustroko kide guztiak kontuan hartuko dira berriztatzerako hautagai bezala.

b) Berriztatera aurkezteko bere eskubideari uko egin nahi duten hautagaien zako aldi bat ezarriko da.

c) Hautagai bezala geratzen diren pertsonekin klaustroak OOG kideen berriztatzeke bere ordezkariak aukeratu dituen bozketa egingo du, ezarritako prozedura orokorrari jarraituz.

## **8. artikulua. Presidentea eta idazkaria aldatzea**

1. Zuzendaria ez badago, ikasketaburua izango da OOGko presidentea. Ikasketaburua ere ez badago, ikasketaburu-ondokoa izango da OOGko presidentea edo, hala badagokio, antzinasun handien duen ikastetxeko OOGko irakaslea.

2. Idazkaria egon ezean, idazkariordeak hartuko du bere lekua edo, hala badagokio, ikastetxeko OOGko irakasle berrienak. Pertsona horrek, irakasle den aldetik, botoa emateko eskubidea izaten jarraituko du.

## **9. artikulua. OOGren funtzionamendu-erregimena**

1. OOGren bilerak kide guztiak bertaratu ahal diren orduan eta egunean egingo dira. Zuzendariak bileraren deialdia bidaliko die OOGko kideei. Deialdiarekin batera, honako hauek helaraziko dizkie: bileraren gai-zerrenda; eztabaidagai izango diren dokumentuak; eta, hala badagokio, onespena. Kideek, beraz, bilera egin baino astebete lehenago, ohiko bileretarako, jasoko dituzte agiri horiek guztiak.

2. Ezohiko bileretarako deiak egin daitezke, betiere, berrogeita zortzi orduz aitzin dei egiten badira. Hala gerta daiteke, premiaz landu behar den auzirik badago.

3. OOG hiru hilekoan behin bilduko da gutxienez arrunt erara. OOG bilduko da zuzendariak hala eskatzen duenean edo OOGko kideen heren batek hala nahi duenean. Edonola ere, ikasturtearen hasieran eta amaieran bilera bana egin beharko ditu nahitaez. OOGko kide guztiak derrigor joan beharko dute OOGren bileretara eta euren partaidetza ezin izango dute inoren esku utzi.

4. OOGren bilerak balioa izango du baldin eta presidentea, idazkaria eta partaideen erdia, gutxienez, bertarutzen badira.

5. OOGk gehiengo soilez hartuko ditu akordioak, hau da, bozka egiteko momentuan bertaratutakoen erdia gehi bat, kasu hauetan izan ezik:

a) Hezkuntza-proiektua, Urteko Plana, Urteko Txostena, AJA eta Bizikidetzaren Arauak eta dagozkien aldaketak onetsi behar direnean. Horiek guztiak gehiengo osoz onartuko dira, hau da, OOGko kideen erdia gehi bat.

b) Zuzendaria berriz izendatzeko proposamena onetsi behar denean. Proposamen hauek OOGko kideen bi hereneko gehiengo kalifikatuaz onetsiko dira.

6. OOGko kideek "beren ordezkaritza-lanean ez dute nahitaezko mandaturik izango" (EEPLko 32.5 artikulua). "Ordezkaritza eredu" bezala, beraz, eratzen da. OOGko kideen askatasun honek, aldiz, ez ditu ordezkatzeko dutenetik aldentzen. Informatzeko, iritziak eskatzeko eta proposamenak helarazteko beharra, aitzitik, izango dute. Honez gainera, pertsona zehatzei dagozkien gaietan babespektotasun beharra izango dute, euren irudia kaltetu ahal den heinean. Era berean, interes bereziko institutuko barneko gaietan babespektotasuna gordeko dute.

7. Erregelamendu honetan eta hezkuntzako legeetan aurreikusi ez diren OOGri buruzko auziak ebazteko, Herri Administrazioen Araubidean eta Administrazioko Prozedura Erkidearen Legeko II. Tituluko 2. kapituluaren ezarritakoa beteko da.

## **10. artikulua. OOGko batzordeak**

1. OOGk Batzorde Iraunkor bat izango du. OOGk ikastegi publietako gobernu organoetako 82/1986 Dekretuko 18tik 23rako artikuluetan zehaztu diren funtzioak beteko ditu, baita osoko bilkurak haren esku uzten dituenak ere. OOG ondoko kide hauek osatuko dituzte: zuzendariak, ikasketaburuak, irakasleen bi ordezkariak, ikasleen gurasoen bi ordezkariak, ikasleen bi ordezkariak eta Abanto-Zierbenako Udaleko ordezkariak baita idazkariak ere, hitza izango duenak, baina botorik ez. Organo horrek gehiengo soilez hartuko ditu erabakiak.

2. Era berean OOGk Ekonomia Batzorde bat izango du. OOGk ikastegi publietako gobernu organoetako 82/1986 Dekretuko 24tik 26rako artikuluetan zehaztu diren funtzioak beteko ditu, baita osoko bilkurak haren esku uzten dituenak ere. OOG ondoko kide hauek osatuko dituzte: zuzendariak, idazkariak, irakasleen ordezkariak, ikasleen gurasoen ordezkariak, ikasleen ordezkariak eta Abanto-Zierbenako Udaleko ordezkariak. Organo horrek gehiengo soilez hartuko ditu erabakiak.

3. OOGk auzi zehatzez arduratuko diren batzordeak sor ditzake. Batzorde horiek sortzeko erabakian haien esku utzi diren eskumenak izango dituzte eta erabakian ezarri bezala sortuko dira. Sortzen diren batzorde guztiek, artikulua honetako aurreko paragrafoetan zehaztu direnak barne, azterketak, txostenak eta proposamenak egin ditzakete beren eskumenekoak diren gaietara buruz. Erabakiak hartzeko, arauetan aurreikusi diren kasu zehatz horietan izan ezik, OOGko berariazko eskuordetza izango da beharrezkoa. Batzorde berezien esku, beraz, gehiengo soilez ebatz daitezkeen erabaki guztiak utz daitezke.

## **II. ATALA. IRAKASLEEN KLAUSTROA**

### **11. artikulua. Irakasleen klaustroaren ezaugarriak eta osaera**

1. Irakasleen klaustroa, DOLORES IBARRURI BHIko aginte-organotako bat izateaz gain, irakasleen berezko parte hartze organoa da. Are gehiago, koordinazio didaktikorako ikastetxean dagoen organo gorena da. Klaustroak, halaber, ikastetxeko hezkuntza-alderdi guztiak planeatzeko, koordinatzeko erabakiak hartzeko eta informazioa emateko ardura du.

2. Klaustroak zuzendaria izango du buru eta ikastetxean irakasle aritzen diren guztiek osatuko dute. DOLORES IBARRURI BHIko idazkaria klaustroko idazkaria izango da ere.

3. Zuzendaririk egon ezean, ikasketaburuak izango da klaustroko buru. Eta zuzendaririk nahiz ikasketabururik ez badago, ikasketaburu-ondokoa edo, hala badagokio, antzintasunik handiena duen irakaslea izango da klaustroko buru. Idazkaririk egon ezean, aitzitik, idazkari-ordeak edo, hala badagokio, irakasleetan berrienak beteko ditu idazkariaren betekizunak.



## 12. artikulua. Klaustroaren funtzionamendu-erregimena

1. Klaustroa hiruhilekoan behin bilduko da gutxienez, zuzendariak deialdia egin edo klaustroa osatzen duten kideen gutxienez heren batek hala eskatzen badu. Horrez gain, bi bilkura egin beharko dira nahitaez: ikasturtearen hasieran bat eta amaieran beste bat.
2. Klaustroko kide guztiek, hau da, klaustroa burutzen den momentuan institutuan irakasle aritzen diren guztiek derrigor joan beharko dute klaustroaren bileretara. Joateko beharra honek, beraz, ez du boto-ordezkatzerik onartzen.
3. Ohiko bileretarako deia bilera baino astebete lehenago egingo da gutxienez. Salbuespen moduan, ezohiko bileretarako deiak egin daitezke, betiere, berrogeita zortzi orduko aurrerapenez egiten badira. Hala egin daiteke premiaz landu behar den auziren bat badago.
4. Klaustroaren bilerak balioa izango du baldin eta presidentea, idazkaria eta partaideen erdia, gutxienez, bertaratzen badira.
5. Klaustroak gehiengo soilez hartuko ditu akordioak, hau da, bozka egiteko momentuan bertaratutakoen erdia gehi bat, kasu hauetan izan ezik:
  - a) Hezkuntza-proiektua, Curriculum-proiektua, Urteko Plana, Urteko Txostena, AJA eta Bizikidetzara Arauak eta dagozkien aldaketak onetsi behar direnean. Horiek guztiak gehiengo osoz onartuko dira, hau da, klaustroko kideen erdia gehi bat.
6. Erregelamendu honetan eta hezkuntzako legeetan aurreikusi ez diren auziak ebazteko, Herri Administrazioen Araubidean eta Administrazioako Prozedura Erkidearen Legeko II. Tituluko 2. kapituluan ezarritakoari jarraituko dio klaustroak.

## 13. artikulua. Klaustroaren eskumenak

EEPLko 35. artikuluan eta indarrean dauden beste xedapen batzuetan, irakasleen klaustroaren funtzioak zehaztu dira.

## III. ATALA. ZUZENDARITZA TALDEA

### 14. artikulua. Zuzendaritza taldea

1. Pertsona bakarreko aginte-organismoek DOLORES IBARRURI BHIko zuzendaritza taldea osatzen dute. Horiek guztiek modu koordinatuan betetzen dituzte beren funtzioak.
2. Zuzendaritza taldeak EEPLko 36. artikuluan esleitzen zaizkion funtzioak izango ditu baita OOGk edo irakasleen klaustroak bere esku uzten dituenak ere.
3. Zuzendaritza taldea astean behin gutxienez bilduko da ohiko bilkuran.
4. Zuzendaritza taldeak, egoki baderitzo, hezkuntza-komunitateko zeinahi kide gonbidatu dezake bere bileretara aholkuak eman ditzan. Era berean, egoki deritzon funtzioak ikastetxeko irakasleen esku utz ditzake, batez ere, etapako koordinatzaileen esku edota proiektu zehatzez arduratzen diren irakasleen esku.
5. DOLORES IBARRURI BHI, pertsona bakarreko organo hauek osatuko dute zuzendaritza taldea: zuzendaria, ikasketaburua, idazkari akademikoa, ikasketaburu-ondokoa eta idazkari-orde akademikoa.

### III. KAPITULUA. PERTSONA BAKARREKO AGINTE-ORGANOAK

#### 15. artikulua. Zuzendaria

1. DOLORES IBARRURI BHIko zuzendaria ikastetxearen ordezkari izango da ondorio guztietarako. Zuzendaria, halaber, Hezkuntza Administrazioaren ordezkari da ikastetxean, eta ikastetxeko taldeko aginte-organoen buru da.
2. Zuzendariak EEPLko 34. artikuluan ezarri diren eskuduntzak eta eskumenak ditu.

#### 16. artikulua. Ikasketaburua

Ikasketaburuak, zuzendaritza taldeko kide den aldetik dituen eskumenez gain, EEPLren 41. artikuluan ezarri zaizkionak izango ditu. Ikasketaburua, zuzendariaren agintepean, irakasleen buru izango da erregimen akademikoarekin zerikusia duten auzi guztietan. Horrez gain, departamentuko buruen eta tutoreen jarduna koordinatuko du.

#### 17. artikulua. Idazkaria

Idazkariak, zuzendaritza taldeko kide denetik dituen eskumenez gain, EEPLren 42. artikuluan ezarri zaizkionak izango ditu. Zuzendariaren agintepean, ikastetxean aritzen diren administrazioako eta zerbitzuetako langileen buru izango da.

#### 18. artikulua. Ikasketaburu-ondokoa

Ikasketaburu-ondokoa, zuzendaritza taldeko kide denetik dituen eskumenez gain, zuzendariak, ikasketaburuarekin koordinatuz, ezarri dizkionak izango ditu.

#### 19. artikulua. Idazkari-ordea

Idazkari-ordekoa, zuzendaritza taldeko kide denetik dituen eskumenez gain, zuzendariak, idazkariarekin koordinatuz, ezarri dizkionak izango ditu.

#### 20. artikulua. Pertsona bakarreko aginte-organok izendatzea eta kargua uztea

EEPLn nahiz arauzko xedapenetan aurreikusitakoa beteko da pertsona bakarreko aginte-organok izendatzeko eta izendatuek kargua uzteko.

#### 21. artikulua. Zuzendaritza taldeko kideak ordezkatzea

1. Zuzendaria kanpoan bada edo gaixo badago, ikasketaburuak beteko ditu haren funtzioak behin-behinekoz, bere karguari dagozkion eskumenak ere mantenduz.
2. Ikasketaburua kanpoan bada edo gaixo badago, ikasketaburu-ondokoak beteko ditu haren funtzioak behin-behinekoz.
3. Era berean, idazkaria kanpoan bada edo gaixo badago, idazkari-ordeak beteko ditu haren funtzioak behin-behinekoz.
4. Dena den, zuzendaritza taldeko kideren batek iraupen luzeko ez egote edo gaixotasun izatekotan, zuzendariak izendatu duen irakasleak beteko ditu ordezkaturako karguaren funtzioak. Zuzendariak gertakariaren berri eman beharko dio OOGri baita Hezkuntza-Ikuskaritzari ere.

#### IV. KAPITULUA. KOORDINAZIO DIDAKTIKORAKO ORGANOA

##### 22. artikulua. DOLORES IBARRURI BHIko koordinazio-organoak

DOLORES IBARRURI BHIko koordinazio-organo hauek egongo dira:

- a) Koordinazio pedagogikorako batzordea.
- b) Departamentu didaktikoak.
- c) Orientabide departamentua.
- d) Departamentuko buruen batzordea.
- e) Tutoretzak eta taldeko irakasle-taldeak.
- f) Etapako koordinatzaileak.

#### I. ATALA. KOORDINAZIO PEDAGOGIKORAKO BATZORDEA

##### 23. artikulua. Koordinazio pedagogikorako batzordearen ezaugarriak eta osaera

1. DOLORES IBARRURI BHIko koordinazio pedagogikorako batzorde bat egongo da. Zuzendariak, aukerabideko baldintzan bertaratuko dena, ikasketaburuak, ikasketaburu-ondokoak, orientatzaileak, DBHko koordinatzaileak, Batxilergoko koordinatzaileak eta LHko koordinatzaileak osatuko dute koordinazio pedagogikorako batzordea, ikasketaburu buru izango duenak. Ikasketaburu-ondokoa izango da mintzagai dugun batzordeko idazkari. Egin beharrekoen arabera, beste klaustrakideren batekin handitu ahal izango da, aldiaren aldiro.
2. Koordinazio pedagogikorako batzordearen erabakiek zentroko aginte-organoek hartutako erabakiak indarrean jartzeko izatera operatiboa daukate.
3. Koordinazio pedagogikorako batzordea astean behin, gutxienez, bilduko da.

##### 24. artikulua. Koordinazio pedagogikorako batzordearen betekizunak

1. Koordinazio pedagogikorako batzordearen xede nagusia ikastetxearen urteko planean zehazten diren ekintzak martxan jartzearen koordinazioa da.
2. Halaber, etapan eta mailen arteko koordinazioaren ardura izango du eta etapa eta maila ezberdinetan eragina duten ekintzetan irizpide komunak ezarriko ditu. Honez gainera, osagarriko eta eskolaz kanpoko ekintzetarako programa betetzen den ikuskatuko du, betiere, ikasketaburuaren agindupean.

#### II. ATALA. DEPARTAMENTU DIDAKTIKOAK

##### 25. artikulua. Departamentu didaktikoen ezaugarriak eta osaera

1. Departamentu didaktikoak arloen, irakasgaien eta moduluen irakaskuntza antolatzeaz eta garatzeaz arduratzen diren organoak dira. Departamentuko buruaren zuzendaritzapean, departamentuek arlo edo irakasgai bera ematen duten irakasleak koordinatuko dituzte, baita antzeko arloak edo irakasgaiak ematen dituzten irakasleak ere. Departamentuko kide guztiek eragin zuzena dute taldeen egitekoaren nahiz taldeak gauzatzeko duen lanaren gain.
2. Irakasle guztiak astean ordubetez bildu beharko dira departamentuaren ohiko bilerak egiteko. Aipatu berri duguna bazter utzi gabe, departamentuko kide guztiak bildu beharko dira departamentu-buruak egoki baderitzo edo departamentuko kideen heren batek hala eskatzen badu.

3. Irakasleek zer departamentu didaktikoan egon behar duten zehazteko, kontuan hartuko da asteko beren ordutegiko ordurik gehien zer alor, irakasgai edo moduluri ematen igarotzen duten. Irakasle batek bi departamentu didaktikori edo gehiagori dagozkion ikasgaien eskolak ematen baditu, ordu gehiago ematen ditueneko ikasgaiaren departamentura atxikiko da; hala ere, berak irakasten dituen gainerako ikasgaien departamentuen bileretara bertaratu ahal izango da, baita bertan egiten diren lanetan eta hartzen diren erabakietan parte hartu ere.

4. Moduluak, arloak edo irakasgaiak departamenturen batera atxikirik ez badaude, edo hainbat departamentutako irakasleek eman baditzakete eta, bestetik, indarreko arauak ez badute ezartzen zer departamentutara atxiki, ikastetxeko zuzendariak, koordinazio pedagogikorako batzordeak hala proposatzen badio, arestian aipatutako irakaskuntzak departamentu batera atxikiko ditu. Departamentu didaktiko honek, departamentuko buruaren zuzendaritzapean, hurrengo artikuluan aipatzen diren jarduera guztiak egin eta auzi guztiak ebatzi beharko ditu, betiere, goian aipatutako moduluen, arloen eta irakasgaien inguruan suertatzen direnak.

## **26. artikulua. Departamentu didaktikoen eta departamentuko buruen betekizunak eta eskumenak**

Ikasturtearen antolamenduari buruz Hezkuntza Sailburuordeak ematen duen Ebazpenean nahiz indarrean dauden gainerako arauetan hainbat ataza ezarri zaizkie departamentu didaktikoei nahiz departamentuko buruei. Departamentu didaktikoek eta departamentuko buruek, beraz, beren gain hartuko dituzte urtero ezarri zaizkien atazak.

## **27. artikulua. DOLORES IBARRURI BHIko departamentu didaktikoen kopurua eta izena**

DOLORES IBARRURI BHI n ikasturtearen antolamenduari buruz Hezkuntzako Sailburuordeak eman duen Ebazpenari lotuko diren departamentu didaktikoak eratuko dira urtero.

## **28. artikulua. Departamentu didaktikoetako buruak izendatzea**

1. Zuzendariak urtero departamentu kideen artetik departamentu didaktikoetako buruak hautatuko ditu, departamentu kideak proposatuta. Buruak hautatu aurretik, zuzendariak entzunaldia egin beharko die. Zuzendariak, halaber, kategoria akademikoaren nahiz espezialitatearen irizpideak errespetatuko ditu beti.

2. Zuzendari-karguren bat dutenak ezin izango dira departamentuko buru izan, ezta departamentuaz goragoko kategoria akademikoren bateko kargudunak badira ere.

3. Departamentuko buruak departamentuaren jarduerak zuzendu eta koordinatuko ditu. Horrez gain, departamentuaren bilerak deituko ditu eta bileren buru izango da. Azkenik, departamentuak bere funtzio guztiak betetzen dituela bermatuko du departamentuko buruak.

## **III. ATALA. ORIENTABIDE DEPARTAMENTUA**

### **29. artikulua. Orientabide departamentuaren osaera**

Orientabide departamentua ikasturtearen antolamenduari buruz Hezkuntzako Sailburuordeak ematen duen Ebazpenean ezarritakoaren arabera eratuko da urtero.

### **30. artikulua. Orientabide departamentuaren betekizunak**

Orientabide departamentuak indarrean dauden legeek agintzen dizkieten funtzioak hartuko ditu bere gain. Hezkuntzako Sailburuordeak ikasturtero ematen du ikasturtearen antolamenduari buruzko Ebazpena. Orientabide departamentuak, horrenbestez, ebazpen horretan jaso diren betekizunak izango ditu. Mintzagai dugun departamentuko kideek, departamentuko funtzio komunez gain,

Hezkuntzako Sailburuaren Ebazpenaren bidez ezarri zaizkien banakako funtzioak bete beharko dituzte.

### **31. artikulua. Orientabide departamentuko burua izendatzea**

1. Zuzendariak urtero izendatuko du orientabide departamentuko burua. Horretarako, hezkuntza-orientabide espezialitateko irakasleen artean bat hautatuko du. Aukeraketa egiteko, departamentuko kideen iritzia kontuan hartuko du eta kategoria akademikoaren nahiz espezialitatearen irizpideak errespetatuko ditu.
2. Zuzendari-karguren bat dutenak ezin izango dira departamentuko buru izan, ezta departamentuaz goragoko kategoria akademikoren bateko kargudun izanda ere.
3. Orientabide departamentuko buruak departamentuaren jarduerak zuzendu eta koordinatuko ditu. Horrez gain, departamentuaren bilerak deituko ditu eta bileren buru izango da. Orientabide departamentuko buruak, azkenik, departamentuak bere funtzio guztiak betetzen dituela bermatuko du.

## **IV. ATALA. DEPARTAMENTUKO BURUEN BATZORDEA**

### **32. artikulua. Departamentuko buruen batzordearen ezaugarriak eta osaera**

1. DOLORES IBARRURI BHI departamentuko buruen batzorde bat egongo da. Zuzendaria, ikasketaburua, departamentu didaktikoko buruek eta orientabide departamentuko burua osatuko dute departamentuko buruen batzordea, ikastetxeko zuzendaria buru izango duelarik. Ikasketaburua aukerabideko baldintzan bertaratuko da batzorde honetako bileretan. Departamentuko bururik gazteena izango da mintzagai dugun batzordeko idazkari.
2. Departamentuko buruen batzordeak, behin behinez, bere funtzioak betetzeko beharrezko jotzen duen bezainbeste batzorde sor dezake.
3. Departamentuko buruen batzordea hamabostean behin, gutxienez, bilduko da osoko bilkuran.

### **33. artikulua. Departamentuko buruen batzordearen eskumenak**

1. Departamentuko buruen batzordea irakasleen klaustroko batzordea da eta eztabaidagune- eta koordinazio- izaera badu. Departamentuko buruen batzordearen funtzio nagusia curriculum-proiektua egitearen, martxan jartzearen eta ebaluazioaren koordinatzea eta proiektuari egin dakizkiokeen aldaketak koordinatzea izango da. Bere betekizunen artean ere hauexek daude: premiazko izaera duten Institutuko funtzionamendu-aspektuez eztabaidatzea eta zuzendaritza taldearen eta departamentu guztien (eta, beraz, zentroko irakasle guztien) artean informazioa transmititzea.
2. Egiteko hori betetzeko jarraian aipatuko ditugun eskumenak izango ditu, betiere, irakasleen klaustroaren zaintzapean egonik:
  - a) Etapako curriculum-proiektuak lantzeko eta berrikusteko zuzentarau orokorrak ezartzea.
  - b) Etapako curriculum-proiektuak nahiz berorien zuzenketak lantzeko eta berrikusteko prozesua ikuskatzea. Etapako curriculum-proiektuak nahiz berorien zuzenketak koordinatzea eta beroriek idaztea. Etapako curriculum-proiektuak ikastetxearen hezkuntza-proiektuarekin bat datoze la ziurtatzea.
  - c) Departamentuen, ikasleen orientazio akademikoari nahiz profesionalari buruzko planaren zein tutoretza planaren programazio didaktikoak lantzeko eta aztertze irizpide orokorrak finkatzea.
  - d) Klaustroari curriculum-proiektuak proposatzea, onar ditzan.
  - e) Etapako curriculum-proiektuak betetzen direla zaintzea eta ebaluatzea.

- f) Klaustroari ebaluazio- eta kalifikazio-bilkuren plangintza orokorra proposatzea, baita azterketak edo aparteko probak egiteko egutegia ere, ikasketaburuak diosenaren arabera.
- g) Irakasleen klaustroari planak proposatzea ondoko hauek ebaluatu ditzan: etapa bakoitzeko curriculum-proiektua, hezkuntza-proiektuaren irakaskuntza, urteko programazio orokorra, ikastetxean eskola-errendimenduak izan duen eboluzioa eta irakaskuntza-prozesua.
- h) Ikastetxeko jarduera nahiz proiektu guztiak ebalua daitezela sustatzea, Hezkuntza Administrazioaren edo aginte-organoen ekimenez gauzatzen diren ebaluazioetan laguntzea, eta ebaluazio horien ondorioz beharrezko gerta litezkeen hobekuntza-planak sustatzea.

## V. ATALA. TUTORETZAK ETA TALDEKO IRAKASLE-TALDEAK

### 34. artikulua. Tutoretza eta tutoreak izendatzea

1. Tutore izatea eta ikasleak orientatzea irakasleen berezko betekizun dira.
2. DOLORES IBARRURI BHIko ikasle talde bakoitzak tutore bat izango du gutxienez.
3. Zuzendariak izendatuko du talde bakoitzeko tutorea. Horrela, ikasketabuaren proposamena kontuan harturik, ikasleei eskola ematen dien irakasleetako bat aukeratuko du, betiere, ikasturtea antolatzeari buruz Hezkuntza Sailburuordearen Ebazpenean jaso diren jarraibideekin bat etorriz.
4. Ikasketaburuak tutoreen lana koordinatuko du eta, aldian aldiro, beharrezkoak diren bilerak egingo ditu tutoretzek egoki funtziona dezaten. Ikasketaburuak orientabide departamentuko buruaren esku utzi ahal izango du betekizun hau.

### 35. artikulua. Tutoreen betekizunak

1. Tutoreek ikasturtero beren gain hartuko dituzte ikasturtea antolatzeari buruzko Hezkuntza Sailburuordearen Ebazpenean esleitu zaizkien funtzioak eta atazak.
2. Hezkuntza-maila bereko tutoreak, aldian aldiro, orientabide departamentuko buruarekin bilduko dira tutoretza planaren garapena eta ebaluazioa koordinatzearen.

### 36. artikulua. Taldeko irakasle-taldearen erregimena eta osaera

1. Ikasle talde berari eskolak ematen dizkieten irakasleek taldeko irakasle-talde bat osatuko dute, eta talde hori ikasle taldearen tutoreak koordinatuko du.
2. Taldeko irakasle-taldea ebaluazioari buruzko araudietan ezarritakoaren arabera bilduko da. Ikasketaburuak egingo du bilerarako deia, ikasle taldeko tutorearen eskariz.
3. Taldeko irakasle-taldearen bileretan ikasketaburu egongo da baita, posiblea den guztietan, orientatzailea ere. Bi hauek hitza izango dute aipatutako bileretan, baina botorik ez eta, behar izanez gero, beste irakasle baten esku utz ditzakete joatea.
4. Antolakuntza edo pedagogi beharreatatik, taldeko irakasle-taldeen bilerak, salbuespenez, zabaldu ahalko dira dagokien maila edo etaparen irakasle-taldeetara. Bilera hauetan hartutako erabakiak berretsi beharko ditu dagokion gobernu organoak, bere eskumenari dagokionean.

### 37. artikulua. Taldeko irakasle-taldeen betekizunak

Taldeko irakasle-taldeak betekizun hauek izango ditu:

- a) Taldeko ikasleen ebaluazio eta segimendu orokorra egitea. Horretarako, ikasleen ikaskuntza hobetzeko beharrezkoak diren neurriak ezarriko dituzte, betiere, ebaluazioari buruzko legeetan ezarri diren baldintzei jarraiki.
- b) Taldeko bizikidetzaga-giroa hobetzeko beharrezkoak diren jarduerak ezartzea.
- c) Taldearen baitan sortzen diren gatazkak modu koordinatuan lantzea eta gatazka horiek ebazteko neurririk egokienak ezartzea.
- d) Taldeko ikasleei proposatzen zaizkien ikaskuntza- nahiz irakaskuntza-jarduerak koordinaturik egon daitezela zaintzea.
- e) Taldeko ikasleen gurasoei edo tutoreei emango zaien informazioa ezagutzea eta hura osatzen laguntzea.
- f) Indarrean dagoen araudian ezartzen diren gainerako funtzioak.

## VI. ATALA. ETAPAKO KOORDINATZAILEAK

### 38. artikulua. Etapako koordinatzaileen ezaugarriak eta betekizunak.

1. DOLORES IBARRURI BHIIn irakasten diren hezkuntza-etapa bakoitzean, etapako koordinatzaile bat egongo da. Zuzendariak izendatuko du, ikasketaburuak proposaturik, dagokion etapan irakasten duten irakasleen artean. Hauek, dagokion etaparen irakasleen artean eta irakasleen eta ikasketaburuaren artean koordinazio didaktikoaren banakako organoaren izaera izango dute. Etapako koordinatzaileak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako koordinatzaileak izango dira. Bere betekizunen garapena bildua izango dute eta ikasketaburuaren ikuskeraren menpe egongo dira.

2. Etapako koordinatzaileen betekizunak hauek izango dira:

- a) Dagokion hezkuntza-etapan irakaskuntza koordinatzea ICP eta IUP kontuan harturik.
- b) Koordinazio pedagogikorako batzordeko bileretan bere etaparen ordezkari izatea.
- c) Ikasketaburuak haien eskuetan uzten dizkion beste funtzioak, bere betekizunen eskurantzaz.

## V. KAPITULUA. PARTAIDETZA-ORGANO BEREZIAK

### 39. artikulua. Partaidetza-organo bereziak

OOGn hezkuntza-komunitate osoak parte hartzen du. Horrez gain, ikasleek eta ikasleen gurasoek elkarrean eta organo berezien bidez hartu ahal izango dute parte ikastetxearen kudeaketan.

## I. ATALA. IKASLEEK PARTE HARTZEKO ORGANO BEREZIAK

### 40. artikulua. Ikasleek parte hartzeko organo bereziak

DOLORES IBARRURI BHIIn badira ikasleek parte hartzeko organo bereziak: taldeko ordezkariak, ikastaldearen batzarra eta ordezkarien batzordea.

### 41. artikulua. Taldeko ordezkariak

1. Ikasturtearen lehenengo hilabetean eta ikasturte osorako, ikasle talde bakoitzak bere ordezkaria aukeratuko du, zuzeneko eta isilpeko bozketaren bidez. Ordezkari hautetsi hori ikasleen ordezkarien batzordeko kide izango da. Ordezkariorde bat ere aukeratuko da. Ordezkariordeak ordezkariaren



lekua hartuko du hura kanpoan denean edo gaixo dagoenean. Ordezkariordeak, halaber, laguntza eskainiko dio ordezkariari.

2. Taldeko ordezkariak eta ordezkariordeak aukeratzeko deialdia ikasketaburuak egingo du eta berak erabakiko ditu bozketarako arauak, beti ere artikuluko honetako 3. atalean zehaztutakoa errespetatuz, eta taldeetako tutoreekin nahiz OOGn ikasleen ordezkari direnekin elkarlanean. Taldeko ordezkari eta ordezkariordeen hautaketaren prozedura, DOLORES IBARRURI BHIko Bizikidetzaren Araudiaren barne egongo da.

3. Edonola ere, taldeko ikasle guztiak izango dira hautesle eta hautagai, kandidaturarik aurkeztu beharrik gabe. Bozketan, ikasle bakoitzak izen bat jarriko du boto-txartelean. Botorik gehien jaso duen ikaslea ordezkari izango da, eta boto gehien jaso dituen bigarrena, aldiz, ordezkariorde. Berdinketarik izanez gero, berdinketarekin bukatzeko, botaketa desberdinak egingo dira boto gehien lortu dituzten ikasleen artean.

4. Ordezkariak eta ordezkariordeak ezeztatu ahal izango dira, baina horretarako alde zuzenetik tutoreari txosten arrazoitua bidaliko zaio. Txosten horrek, ordezkaria zein ordezkariordea aukeratu zuten ikasleen gehiengo absolutuaren onspena izan behar du. Kasu horretan, hauteskunde berrietarako deialdia egingo da, hamabost eguneko epean eta aurreko atalean adierazitakoa kontuan hartuta. Onartu diren dimisioen kasuan modu berean jardungo da.

5. Ezin izango dira ordezkariak zigortu araudi honen arabera bete beharreko funtzioak bete izanagatik.

#### **42. artikulua. Taldeko ordezkarien funtzioak**

Hauek dira taldeko ordezkarien funtzioak:

- a) Ordezkarien batzordearen bileretara joatea bere taldea ordezkatzeko eta eztabaidetan parte hartzea eta bere taldeari bileretan landutakoa adieraztea. Horretarako, beharrezkoa den eskola denbora erabiltzen.
- b) Aginte-organoei eta koordinazio didaktikorako organoei ordezkatzeko duten taldearen iradokizunak eta kexak helaraztea.
- c) Bizikidetzaren sustatzea taldeko ikasleen artean.
- d) Ordezkatzeko duten taldearen funtzionamenduaren gain eragina duten gaiak tutoreekin eta gainerako irakasleekin lantzea.
- e) Irakasleekin eta ikastetxearen aginte-organismoekin batera ikastetxearen funtzionamendu egokiaren alde lan egitea.
- f) Ikastetxeko materiala eta instalazioak behar bezala erabiltzen diren zaintzea.
- g) Ikastetxeko aginte-organoei, beren eskumenen barruan, esleitzen dioten funtzio oro.

#### **43. artikulua. Ikastaldearen batzarra**

1. Taldeko ikasleek klaseko jarduerarekin zerikusia duten gaien gestioan parte hartuko dute ikastaldearen batzarraren bitartez.

2. Ikastaldearen batzarra, taldeko bizikidetzarekin, klaseko martxarekin eta eskolaz kanpoko ekintzen antolakuntzarekin zerikusia duten gaiak buruz eztabaidatuko da eta proposamenak egingo ditu, bere eskumenen barruan. Bilerak, bere gelan bertan izango dira eta bilerak horietara ezin zango dira joan taldekideek ez diren ikasleak.



3. Taldeko tutoreak ikastaldearen batzarraren berri izan behar du eta, dagokionean, berak ere parte hartu behar du. Bilerak tutoreak erabakitzen badu edo taldeko kideen herenak eskatzen badu ospatuko da eta bera izango da batzarraren buru. Tutoreak batzarraren lehendakaritza ordezkaritari eman diezaioke, bere ustez, eztabaidatzeko gaiak hala eskatzen dutenean.

4. Ikastaldearen batzarrak beste taldeko ikasleekin bilerak izatea eska dezake guztien intereseko gaiak lantzeko. Kasu hauetan, batzarraren lehendakaria, bildutako taldeen tutore bat zango da. Honek batzarraren lehendakaritza bildutako taldeen ordezkeri bati eman diezaioke, bere ustez, eztabaidatzeko gaiak hala eskatzen dutenean.

#### **44. artikulua. Ordezkarien batzordearen eraketa eta jarduera-araudia**

1. Ikasleek ikastetxearen kudeaketan parte hartzeko duten organoak, EEPLren 30. artikuluan aipatzen denak, ikasleen ordezkarien batzordea du izena.

2. DOLORES IBARRURI BHIIn ikasleen ordezkarien batzordea egongo da. Batzorde hori osatuko dute, batetik, taldeetako ikasleek libreki hautatu dituzten ordezkariek eta, bestetik, ikastetxeko OOGn ikasleen ordezkeri aritzen direnek.

3. Ordezkarien batzordeak funtzionamendurako bere arauak landuko ditu. Ikasketaburuak onartu ondoren, arau horiek indarrean sartuko dira. Ikasketaburuak arau horiek baztertu ahal izango ditu baldin eta legez ezarritako arau baten aurka badoaz, araudi honetako legeen aurka badoaz edo ikasleen eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideen edo betebeharren aurka badoaz. Ordezkarien batzordeko funtzionamenduaren arauak DOLORES IBARRURI BHIko Bizikidetzaren Araudiaren barne egongo dira.

4. Edonola ere, ikastetxeko ikasleen artean dagoen aniztasuna eta ordezkarien batzordearen eraginkortasuna zaindu beharko dira.

5. Zuzendariek ordezkarien batzordeari bere bilerak egiteko leku egoki bat utziko dio, baita behar bezala funtzionatzeko behar dituen bitartekoak ere.

6. Ordezkarien batzordeko kideek, beren funtzioak betetzean, OOGren bilkuretako aktak kontsulta ditzakete, baita ikastetxeko administrazio-mailako beste edozein agiri ere, kasu batean izan ezik: dokumentazio jakin bat erabili edo hedatzearen ondorioz, pertsonen intimitatearen aurka doanean.

#### **45. artikulua. Ordezkarien batzordearen funtzioak**

Hauetako dira ordezkarien batzordearen funtzioak:

a) Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua, Urteko Plana eta Urteko Memoria lantzeko proposamenak, baita eskola jardunaldia antolatzeak ere, zuzendaritza taldeari luzatzea.

b) OOGko ikasleen ordezkeriei aholkularitza eta laguntza eskaintzea, baita talde edo maila bakoitzak dituen arazoei buruzko informazioa ematea ere.

c) OOGko ikasleen ordezkarien aldetik informazioa jasotzea, gai-zerrendari buruz, modu eraginkorrean aztertutako gaiak buruz eta bere baitan hartutako akordioei buruz.

d) OOGrako txostenak egitea, bai ikasleen ordezkarien batzordearen berezko ekimenez bai OOGk hala eskatuta ere.

e) AJA aldatzeko proposamenak egitea, beren eskumenen barruan.

f) Ikasleei ordezkarien batzordearen jarduerari buruzko informazioa ematea.

g) Ikastetxean ekintza osagarrien eta eskolaz kanpoko ekintzak garatzeko proposamenak egitea.

h) Enpresetan praktikak egiteko hitzarmenei buruzko informazioa jasotzea, hitzarmenik egonez gero, eta horien jarraipenean parte hartzea.

i) Ikasleengan eragin zuzena duen beste edozein jarduera edo erabaki.

## II. ATALA. GURASOEN BATZARRA, IKASLEEN GURASO-ELKARTEAK ETA IKASLE ELKARTEAK

### 46. artikulua. Gurasoen batzarra

1. DOLORES IBARRURI BHIko gurasoen batzarraren bidez, gurasoek ikastetxearen kudeaketan parte har dezakete. Ikasle guztien gurasoek edo tutoreek osatuko dute organo hori. Zuzendariak egingo du biltzeko deialdia eta bera izango da bilkuraren buru; ikasturte bakoitzaren hasieran gutxienez behin bilduko da gurasoen batzarra, betiere, ez bada beste prozedura bat aukeratzen, artikuluko honen 2. eta 3. e) ataletan azaltzen den ahalmenean oinarrituta.

2. Gurasoen batzarraren barruan beste organo bat egon daiteke, zuzeneko eta isilpeko botoaren bidez aukeratuko dena; barne-organok gurasoen batzarraren bilerak antolatuko ditu eta batzarrak hartutako erabakiak gauzatzen direla gainbegiratuko du.

3. Gurasoen batzarrak honako funtzio hauek beteko ditu:

a) Egokitzat jotzen dituen proposamenak ikastetxeko gainerako organoetara luzatzea, organo horien eskumenekoak diren gaiei buruzkoak. Helarazi diezaieke, beraz, irakaskuntza-jardueren, prestakuntza-jardueren, eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien programa nahiz urteko kudeaketa-programa gauzatzearen balioespena.

b) Zuzendaritza taldearekin eta klaustroarekin kontaktuan egotea, ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren garapenean ahalik eta lankidetzat handiena lortze aldera.

c) Gurasoen ekimena sustatzea, ikastetxearen bizitzan aktiboki parte har dezaten.

d) Taldeko organoetan gurasoen ordezkari direnak gurasoen batzarraren bilkuretara agertzeko eskatzea, egindako kudeaketari buruzko informazioa eman dezaten.

e) Funtzionamendurako bere arauak onestea, DOLORES IBARRURI BHIko Bizikidetzaren Araudian islatuko direnak.

### 47. artikulua. Ikasleen guraso elkarteak eta ikasle elkarteak

1. DOLORES IBARRURI BHIk, indarrean dagoen otsailaren 10eko 66/1987 Dekretuak, EAEko ikasleen guraso elkarteak arautzen dituenak, xedatzen duenaren arabera eratuko diren ikasleen guraso elkarteak aintzatetsiko ditu, haien egoitza izango da eta ikastetxearen funtzionamenduan parte hartzera lagunduko die. Ikastetxeak, halaber, legalki sortu diren ikasle elkarten egoitza izango da eta ikasle elkarteei ikastetxearen funtzionamenduan parte hartzera lagunduko die.

2. Zuzendariak zehaztuko du legalki eratu diren elkarteek zer lokal erabiliko dituzten modu iraunkorrean. Zuzendariak, elkarten ordezkariak hala eskaturik, gune komunak erabiltzeko baimena emango die arestian aipatutako elkarteei.

3. OOGn ordezkari aritzeko, guraso elkarerik garrantzitsueneko kide bat aukeratuko da, halaxe zehaztu baita arauetan. Aipatu berri dugun kasuan izan ezik, legalki eratu diren elkarteak ez dira inola ere baztertuko.

4. Ikastetxeko aginte-organoei ez dituzte ikasleen gurasoak edota ikastetxeko ikasleak jardutez edo ez egitez behartuko elkarte eratuetako batean izena ematera ezta elkarte eratuetako bat diruz laguntzera ere.

#### **48. artikulua. Elkarte legalki eratuen bidez parte hartzea**

Ikastetxean eratu diren ikasleen guraso elkarteek nahiz ikasle elkarteek ondoko hauek egin ditzakete:

- a) OOGri hezkuntza-proiektua eta urteko programazio orokorra lantzeko nahiz aldatzeko proposamenak egin.
- b) OOGri ikastetxearen martxari buruz egoki deritzon alderdien berri eman.
- c) Hezkuntza-komunitateko kide guztiei bere jardueren berri eman.
- d) OOGn landu diren gaiet buruzko informazioa jaso. OOGren gai-zerrenda jasotzea hark bilerak egin aurretik, proposamenak prestatu ahal izateko.
- e) OOGrako txostenak egin, bai guraso nahiz ikasle elkarten berezko ekimenez bai OOGk hala eskatuta.
- f) AJA aldatzeko proposamenak landu.
- g) Jarduera osagarriak egitea proposatzea.
- h) Emaitza akademiko orokorren nahiz berorien gain ikastetxeak egiten duen balioespenaren berri izatea.
- i) Hezkuntza-proiektuaren, curriculum proiektuen eta proiektu horien aldaketan ale bat jasotzea.
- j) Ikastetxeak hautatu dituen testuliburuei eta ikasmaterialei buruzko informazioa jasotzea.
- k) Hezkuntza-komunitateko kide guztien arteko elkarlana sustatzea.
- l) Ikastetxeko aretoak erabiltzea, zuzendariak ezarritako baldintzetan.

## **II. TITULUA. ZENTROAREN KUDEAKETA ETA HEZKUNTZA-JARDUERAREN MARKOA**

### **I. KAPITULUA. DOLORES IBARRURI BHIaren KUDEAKETA**

#### **I. ATALA. IKASKETEN ANTOLAMENDURAKO ETA KOORDINAZIORAKO BALIABIDEAK**

**49. artikulua.** DOLORES IBARRURI BHIk jarduera akademikoaren antolaketa eta koordinazio egokirako hurrengo baliabideak izango ditu: Ikastetxearen Hezkuntza-Proiektua, Ikastetxearen Curriculum-Proiektua, Ikastetxearen Hizkuntz Egitasmoa, Ikastetxearen Kudeaketa-Proiektua eta Antolakuntza eta Jarduera Araudia.

#### **50. artikulua. Ikastetxearen Hezkuntza-Proiektua (IHP)**

1. IHP ikastetxeak duen autonomia pedagogikoaren adierazpena da eta honek hezkuntza aukera batzen du, eskola komunitateko sektore guztiek onartua.
2. IHP ikastetxerako eta hezkuntza-etapa guztietarako bakarra izango da. Zuzendaritza taldeak horren elaborazioaren ardura izango du, horretarako egoki ikusten dituen laguntzak izango ditu, bereziki, irakasleen klaustroarena.

#### **51. artikulua. Ikastetxearen Curriculum-Proiektua (ICP)**

1. ICP IHPren isla da irakas-aspektuan.

2. ICPk zentroaren curriculum-proiektuak koordinatuko ditu, etapa, maila eta arlo ezberdinei dagokienez. Honen elaborazioa irakasleen klaustroari dagokio, zuzendaritza taldearen zuzendaritzapean, bereziki, ikasketa burutzaren zuzendaritzapean.

3. EEPLren 48.2 artikulua irakasle taldeak eta irakasleak IHP eta ICP uztartzera behartzen ditu. Proiektu hauei errespetu osoa izanik, irakasleek egoki ikusten dituzten erabakiak hartu ahal izango dituzte, bai eskola jardueren elaborazio eta programazioetarako, baita euren arloetako jardueren programen aplikaziorako ere. Irakasle bakoitzak hartzen dituen erabakiek IHPk eta ICPk ezarritako ildoak bete beharko dute.

## **52. artikulua. Ikastetxearen Hizkuntz Egitasmoa (IHE)**

1. DOLORES IBARRURI BHI In IHEk hizkuntzen erabilerarekin eta heziketarekin lotutako aspektuen planifikazioa batzen du. IHEk hizkuntzen irakaskuntza eta erabilerarako irizpideak garatuko ditu, hain zuzen ere, IHEn batzen diren irizpideak ikasketa prozesuan, eta ICPn hizkuntzen trataera zehaztuko du.

2. IHEren elaborazioa irakasleen klaustroari dagokio, zuzendaritza taldearen zuzendaritzapean, bereziki, ikasketa burutzaren zuzendaritzapean, ikastetxean irakasten diren atzerriko hizkuntzei eta EAEko hizkuntza ofizialei dagokien arloetako departamentuen proposamenari erantzunez. Ikastetxeko klaustroari honen onarpena dagokio.

## **53. artikulua. Ikastetxearen Kudeaketa-Proiektua (IKP)**

1. IKP zentroaren irizpideak eta lehentasunak zehazten dituen agiria da, ekonomia eta finantza jardueraren kudeaketari dagokionez. Urteko IKPren gauzatzea urteko kudeaketa programan islatzen da, eta honen adierazpen gorenaren aurrekontuaren gauzatzea eta onarpena izango da.

2. IKPren elaborazioa klaustroari dagokio, zuzendaritza taldearen zuzendaritzapean, bereziki, idazkaritza akademikoaren zuzendaritzapean. Ikastetxeko OOGri honen onarpena dagokio.

## **54. artikulua. Antolakuntza eta jarduera araudia (AJA)**

1. AJA ikastetxearen funtzionamendua eta antolakuntza egitura zehazten duen agiria da. Beste aspektu batzuen artean, hezkuntza-komunitatearen kide guztien arteko begirunea eta elkarbizitza bermatzen dituzten arauak ezartzen ditu. Era berean, instalazio eta aretoen erabilera egokia eta errendimendu akademikoaren ebaluazio objektiboa ere arautzen ditu.

2. Zuzendaritza taldea AJAren elaborazioaz eta balizko aldaketez arduratuko da; horretarako beharrezko ikusten dituen laguntzak izango ditu, batez ere, irakasleen klaustroarenak.

3. AJAk xedapen guztietan indarrean dauden arauak kontuan izango ditu.

4. AJAk bigarren mailako zehaztasun bat izango du, ikastetxearen Bizikidetzaren Arauak, AJAren garapena izango direnak elkarbizitzarekin lotutako irakaskuntza jardueraren aspektuetan, eguneko ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan eta instalazioen erabileran.

## **II. ATALA. IKASKETEN PLANGINTZARAKO BALIABIDEAK**

**55. artikulua.** DOLORES IBARRURI BHIk ikasturte bakoitzeko jarduera akademikoaren plangintza egokia burutzeko hurrengo baliabideak izango ditu: Ikastetxearen Urteko Plana eta Ikastetxearen Urteko Memoria.

## 56. artikulua. Ikastetxearen Urteko Plana (IUP)

1. DOLORES IBARRURI BHIko IUP ikasturte bakoitzeko institutuko antolakuntza proposamena batzen duen agiria da. Honek zentroa dinamizatzea, irakaskuntza jarduerari egonkortasuna eta kohesioa ematea eta ikastetxearen definiziorako erreferentziazko ereduak ematea baimentzen du
2. DOLORES IBARRURI BHIk ikasturte bakoitzeko IUP burutuko du eta honek gutxienez hurrengo planak eta programak jorratuko ditu:
  - a) Irakaskuntza-jardueren programa.
  - b) Orientazio eta tutoretza plana.
  - c) Urteko bizikidetza plana.
  - d) Ekintza osagarrien eta eskolaz kanpoko ekintzen programa.
  - e) Irakasleentzako formazio plana.
  - f) Urteko kudeaketa programa.
3. Plan eta programa hauen prestakuntza instantzia egokiei dagokie, araudi honetan esaten den bezalaxe; beti ere, zuzendaritza taldearen zuzendaritzapean. Honek plan eta programa ezberdinak koordinatuko ditu eta IUP egiteko eta onartua izan ahal izateko OOGn aurkezteko arduraduna izango da.
4. IUPren elaborazioa aurreko ikasturteko hirugarren hiruhilabetekoan hasiko da, bereziki, ikasturte hasierarako irakaskuntza jarduerak ondo zehaztuta egon daitezen helburuarekin. Nahiz eta bere elaborazioa eta azken onarpena urriaren 31ra arte izan, urteko kudeaketa programa izan ezik, martxoaren 31era arte izango delarik.

## 57. artikulua. Irakaskuntza-jardueren programa

1. Irakaskuntza-jardueren programak ikasturterako heziketa plan osoa barnean izango du, besteak beste, honako hauek barruan izango ditu: aurreikusitako urteko helburuak, ikastetxearen antolakuntza, berrikuntza edo heziketa arloetako proiektuak eta irakaskuntza jardueraren ebaluazioa.
2. Irakaskuntza-jardueren programa egin beharko da IHP eta ICPren arauen eta izpirituaren arabera eta indarrean dauden arauak zehatz-mehatz kontuan hartuz, eta Hezkuntza Sailak egindako orientazio pedagogiko-didaktikoak ere kontuan izanik.
3. Irakaslanaren antolamendua, irakasgaien banaketarako eta taldeen esleipenerako prozedura:

1/1993 Legeak, Euskal Eskola Publikoari buruzkoak, 36.f) artikuluan xedatzen duenez, zuzendaritza-taldearen egitekoa da irakasle taldeak antolatzea eta irakasleak beren jardueretara atxikitzeko irizpideak erabakitzea ikasturte bakoitzaren hasieran. Horretarako, irakasgaiari buruzko arauak hartu behar ditu kontuan.

Zuzendaritza taldeak legezko eskumena du, ikastetxearen antolamendu hoberenari eta ikasleen beharrei begirako moldakortasun- eta egokitasun-printzipioak kontuan hartuta, eskolak irakasleen artean banatzeko, departamentuen eta irakasleen proposamenak entzun eta gero eta, izatekotan, Hezkuntza Sailaren Plangintza Zerbitzuaren eskakizunez arduratuz.

Era berean, zuzendaritza-taldeari dagokio hezkuntza kudeatzeko lanak eta ordu-kreditua banatzea ikastetxearen Urteko Planeko proiektuen arduradunen artean.

a. Zuzendaritza-taldeak espezialitate bakoitzari dagozkion irakasgai guztien orduak zenbatuko ditu eta ordu-esleipen proposamena eskatuko dio departamentu bakoitzari ezarritako asteko jardunaldia (gaur

egun 17 ordu) betetzeko ordu nahikoak dituzten departamentu bakoitzaren irakasle haientzat, hau da, erabateko ordu kopuruaren eta 17ren arteko zatidura bezalako hainbeste departamentuaren irakaslerentzat, gehi beste pertsona batentzat, zatiduraren hondakina 12 baino handiago edo bezalakoagoa bada.

Departamendu bakoitzak irakasgaiari buruzko arauak hartu behar ditu kontuan, bereziki "ikasturtea antolatzeke moduari buruzko Hezkuntza Sailburuordearen ebazpenak" adierazten dituenak.

Aipatutako proposamenean departamentu bakoitzak ezarritako asteko jardunaldia betetzeko ordu nahikoekiko departamentuaren irakasleen ordutegiak soilik osatuko ditu, eta soilik bere espezialitateari dagozkion irakasgaiekin, aipatutako asteko jardunaldian estutuz. Inongo irakasleri esleitu ez dizkieten soberako orduak adieraziko dira.

Irakasgai eta taldeen banaketa egingo da ekitatea eta irakaskuntzaren kalitatea lortzeko irizpideen arabera, zailtasunik handieneko taldeak eta arreta berezia behar dutenak esleitu behar zaizkiela, lehentasunez, ikastetxean egonkor dauden irakasleei.

Departamentu bati ez dagozkion irakasgaien esleipena edo, talde jakin batzuei emateko ikasgai batzuk izendatzea, eta tutoretzak eta pedagogi koordinazioaren eginkizunak izendatzea zuzendaritza taldeko eskumenak dira.

Ordu-esleipen eta dagokion talde-esleipen proposamena efektura deitutako departamentuaren ezohiko bileran egingo da, eta ezarritako asteko jardunaldia betetzeko ordu nahikoak dituzten bigarren hezkuntzako irakasleek, hau da, erabateko ordu kopuruaren eta 17ren arteko zatidura bezalako hainbeste irakasle kopuruak, gehi beste pertsona bat zatiduraren hondakina 12 baino handiago edo bezalakoagoa bada, haien arteko akordio komuneko ordu-esleipena egingo du. Maisu-maistren kidegoko departamentu bakoitzean soberako orduak bigarren hezkuntzako irakasleen kidegora pasatuko dira. Materia-esleipen eta talde-esleipen proposamenarekin batera aipaturiko bilerako akta emango da ikasketa burutuan ezarritako epean.

b. Departamentu batean akordio batera ez bada heltzen, ikasketa buruak departamentuko ezohiko bilerarako deialdia egingo du, bilerara bertaraturaz, eta asteko jardunaldia betetzeko ordu nahikoekiko departamentuaren irakasleen artean jarraiko txanden sistema erabiliko da taldeen esleipena osatzeko, ondorengo ordenari jarraituz:

-Maisu-Maistrak: Kategoria hauen arabera sailkatuko dira:

-Ikastetxean behin-betiko destinoa duten Maisu-Maistrak.

-Behin betiko destinorik gabeko Maisu-Maistra karreradun funtzionarioak, Ikastetxean daudela behin-behineko destino batean edo Zerbitzu-eginkizunetan.

Kategoria bakoitzean honela ordenatuko dira:

-Behin-betiko destinoa duen karrerako funtzionario gisa antzintasun handiagoa edukitzea ikastetxean.

-Maisu-Maistren Kidegoan karrerako funtzionario gisa zerbitzuan denbora handiagoa eman izana

-Antzintasun handiagoko sarrera-promozioa eta, honen barruan, lortutako puntuaziorik handiena.

Lehenengo eta behin, beraz, Maisu-Maistren kidegora adskribitutako irakasleek jarraiko txanden sistemaren bidez taldeak eta irakasgaiak aukerako dituzte beste kidegoetako irakasleekiko lehentasuna dutelarik.

-Bigarren Hezkuntzako Irakasleak: Kategoria hauen arabera sailkatuko dira:

-Ikastetxean behin-betiko destinoa duten Irakasleak.

-Behin betiko destinorik gabeko Irakasle karreradun funtzionarioak, Ikastetxean daudela behin-behineko destino batean edo Zerbitzu-eginkizunetan.

Kategoria bakoitzean honela ordenatuko dira:

-Katedradunak, baleude.

-Behin-betiko destinoa duen karrerako funtzionario gisa antzintasun handiagoa edukitzea Ikastetxean.

-Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoan karrerako funtzionario gisa zerbitzuan denbora handiagoa eman izana

-Antzintasun handiagoko sarrera-promozioa eta, honen barruan, lortutako puntuaziorik handiena.

-Irakaslego bitartekoa (Interinoa). Ikastetxean duten antzintasunaren arabera aukeratuko dute.

Sailkapen honen araberrako ordenazioa egin eta gero, irakasle bakoitzak, txanda bakoitzean, bere titulazioa, espezialitate zein hizkuntza perfilarekin bat egiten duen talde bat hautatuko du ondorengo errespetatuz:

-Maisu-Maistrak hautatu ez dituzten DBHko 1 eta 2. mailako taldeak aukeratu ahal izango dituzte.

-Irakaslearen espezialitate zein hizkuntza-perfilarenak agortuta izan behar dira.

Departamenduko kideren bat ez balego aukeratzeko unean, ikasketa buruak bere izenean egingo zuen.

Emaizta finala berariazko aktan islatuko da.

Zuzendaritza taldeak irakaslanaren antolamendua osatuko du departamenduen proposamenak errespetatuz eta Hezkuntza Sailaren Plangintza Zerbitzuaren eskakizunez arduratuz.

## **58. artikulua. Orientazio eta tutoretza plana**

1. Orientazio eta tutoretza plana orientazio eta jarraipen ekintza guztien egitura antolatzailea da, ikastetxean dauden ikasle guztiei begira dago eta honen helburua oinarrizko gaitasunen lorpena da. Orientabide departamentuko ekintzen programazioa bilduko du eta, irakasleek eta tutoreek tutoretza ekintza arloan garatzen dituzten jarduera guztien programazioa ere barne egongo da.

2. Orientazio eta tutoretza plana ikasturte bakoitzerako tutore taldeak egingo du. Orientatzaileak elaborazioa, garapena eta ebaluazioa koordinatuko ditu, ikasketa burutzaren zuzendaritzapean; Hezkuntza Sailak esandako ildoak kontuan hartuz eta indarrean dauden arauak errespetatuz.

## **59. artikulua. Urteko bizikidetza plana**

1. Urteko bizikidetza planak ikasturtean zehar institutuan gatazken trataera eta elkarbizitza hobetzeko arloan egiten diren ekintzak batzen ditu.

2. Urteko bizikidetza plana bizikidetza behatokiak proposatua da, eta hau bere jarraipen eta ebaluazioaz arduratuko da.



## **60. artikulua. Ekintza osagarrien eta eskolaz kanpoko ekintzen programa**

1. Ekintza osagarriak irakaskuntza-formatiboko izaera duten ezohiko ekintzak dira, ICPren garapenean, hauek ordutegi barruan, gehien bat, taldean egiten dira, eta askotan eskola esparrutik kanpo. Departamentu ezberdinek egindako programazioetan dauden ekintza didaktikoak izanik, ikasleak parte hartzera behartuta daude, beste irakaskuntza ekintzetan bezalaxe.
2. Eskolaz kanpoko ekintzak badira beste mota bateko ekintza formatiboak, eskola ordutegitik kanpo programatuta daude, ikasleek askatasunez parte har dezaten.
3. Ekintza hauei dagokien programak honako aspektuak zehaztuko ditu: arduraduna edo arduradunak, hartzaileak, helburuak, garapena, tokia, egingo diren egunak eta orduak, ekintza bakoitzaren finantziario modua eta zenbatekoa.
4. DOLORES IBARRURI BHIren Bizikidetzara Arauetan ekintza osagarrien eta eskolaz kanpoko ekintzen programazioa, garapena eta ebaluazioa arautzen dira.

## **61. artikulua. Irakasleentzako formazio plana**

1. Irakasleentzako formazio planak ikastetxean bertan, edo ikastetxetik kanpo baldin eta Hezkuntza Sailaren menpean dauden, antolatzen diren irakaskuntza ekintzak batzen ditu, irakasle guztientzat edo batzuentzat.
2. Irakasleen ordutegietan azaltzen den formazio ekintzetarako orduari dagokionez, irakasleak planaren ekintzetan parte hartzera behartuta daude.
3. Ekintza hauen antolaketa zuzendaritza taldeari dagokio, honek antzematen diren beharrak eta ikastetxeko hezkuntza-komunitatearen organo ezberdinek egiten dituzten iradokizunak bilduko ditu.

## **62. artikulua. Urteko kudeaketa programa**

1. Urteko kudeaketa programa IKPren gauzatzea da. Ikastetxearen urteko kudeaketaren aspektu administratiboez arduratuko da, bereziki. Diru-sarreraren eta gastuen aurrekontua, aurreikusten diren lanak eta egingo diren altzarien edo material inbentariagarrien erosketak finkatuko ditu.
2. Programaren elaborazioaren nahiz kudeaketaren arduraduna idazkari akademikoa izango da, zuzendaritza taldearekin batera lan eginez eta azken erantzukizuna zuzendariarena delarik. Izan ere, OOGren batzorde ekonomikoari eta OOGri berari egindako gastuen justifikazioa eta programaren betetze egoera aurkeztu beharko dizkie, aldian-aldian edo eskatzen den guztietan.
3. Institutuko kudeaketa ekonomikoaren urteroko izaerak, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren kudeaketa ekonomiko orokorraren menpean dagoen heinean, IUPren atal honek ere urteko izaera edukitzera behartzen du. Arrazoi honengatik urteko kudeaketa programa, kontuen egoerari dagokionez, abenduaren 31rako aurkeztu eta onartuko da, eta bere osotasunean urtearen lehen hiruhilabetekorako.

## **63. artikulua. Ikastetxearen Urteko Memoria (IUM)**

1. IUMk DOLORES IBARRURI BHIko jarduera arruntetan adierazgarria izan daitekeen guztia bildu eta baloratuko du.
2. Derrigorrez hurrengo atalak izan beharko ditu:
  - a) IUPn zehaztutako urteko helburuen betetzearen analisia.
  - b) Ikasleen emaitza akademikoen balorazioa.



- c) Ondorioak eta ICPren aldaketen eta jardueren proposamenak.
- d) Planen eta programen garapena eta euren balorazioa, IUPren barnean.
- e) Eskola bizitzaren gertaera inportanteenak.
- f) Ikastetxearen funtzionamendu orokorraren analisia eta aldaketa eta hobekuntza proposamenak.
- g) Aurrekontuen garapenaren analisia.

3. IUM ekainaren azken asteetan eta irailaren lehenengo bitartean burutuko da, Zuzendaritza taldea elaborazioa koordinatzeko arduraduna izanik, OOGren batzorde iraunkorraren laguntzaz; eta idatziriko txostenak eta zentroan instantzia ezberdinetan bildutako informazio guztia kontuan izanik.

4. IUMren elaborazioa eta azken onarpena egiteko epea ikasturte bakoitzaren antolakuntzarako, Hezkuntzako Sailburuordeak emandako ebazpenak adierazitakoa izango da.

## II KAPITULUA. HEZKUNTZA-JARDUERAREN MARKOA

### 64. artikulua. Irakasleak

1. Irakasleei hauxe dagokie:

- a) ICP kontuan izanik, heziketa jardueren programazioa burutzea, garatzea eta ebaluatzea.
- b) Ikasleekiko tutoretzak bere gain hartzea, euren ikasketa eta aukera akademiko eta profesionalean orientatzeko.
- c) Irakasle bakoitzari dagokion irakasle-taldean parte hartzea, eskola testuingurura egokitu eta koordinatutako ekintza lortzeko eta definitzeko.
- d) IUPren elaborazioan laguntza ematea eta, ahal den heinean, bertan dauden proiektu berezietan parte hartzea, bai ikastetxearen ebaluazioan, baita irakaskuntza praktikan ere.
- e) Ikastetxearen gobernuko organoek eta Hezkuntza Sailak ezartzen dituzten baldintzetan formazio ekintzetan era aktibo batean parte hartzea.
- f) Euren irakaskuntza funtzioaren barruan agintzen zaizkien kargu eta funtzioak betetzea.
- g) Ikastetxearen ibilbide on eta antolaketan laguntzea, AJA honetan zehazten diren arduradun eta ikasketa burutzaren koordinaziopean.
- h) Irakasle-taldeen eta klaustroaren bileretara azaltzea, baita hautatua izan den taldeko aginte-organoen bileretara bertaratzeko ere.
- i) Hezkuntza Sailak oro har ezartzen dituen arauak edo, bere irakaskuntza funtzioen barruan, ikastetxearen aginte-organoen ezartzen dituztenak betetzea.

2. Irakasleek Hezkuntza Sailak indarrean dauden arauetan zehazten duen dedikazioa izango dute, bai ikastetxeari zor dion ordutegiari dagokionez, baita zaintzen eta ordu lektiboen ordutegiari dagokionez ere.

3. Irakasleen ordutegiak honako irizpide pedagogiko hauen arabera egingo dira:

- a) Talde bakoitzeko ordutegian irakasgai banaketa orekatua saiatuko da.
- b) Ez da egun batean arlo bakoitzerako saio bat baino gehiago ezarriko, dagokion departamentuak, irizpide pedagogikoen arabera, ez badu saio elkartzeko eskatzen. Kasu hauetan, eskatutako arloetan elkartzeko saioak lotuta mantentzen saiatuko da.

- c) Talde bereko irakasgai bera asteko egunetan zehar ordu-bandaz aldatzen saiatuko da.
- d) Institututik kanpoko baldintzatzaileak direla eta, irakasgai baten ordutegia besteen ordutegiak egin baino lehenago finkatu behar bada, gertaera honek ekar ditzakeen kalteak era orekatuan banatzen saiatuko da.
- e) DBHko maila bereko tutoretza orduak aldi berean ematen saiatuko da.
- f) Pertsona bakarreko kargu batzuen koordinazioak ordutegian sartuko dira funtzionamendu egokia bultzatzeko.
- g) Irakasleen ordutegietan ahalik eta hutsune eta ordu solte gutxien esleitzea saiatuko da.
- h) Irakasle bakoitzari aste bakoitzean erdi-lanaldi batean, gutxienez, ez zaio eskola ematea ezarriko.
- i) Zaintzak irakasle bakoitzeko ordutegiko hutsuneetan esleitzen saiatuko da.

4. Irakasleen ordutegiak IUPren heziketa jardueren programan sartuko dira, ikastetxean dauden irakasle bakoitzaren orduz orduko ekintzak zehazten direlarik. Ordutegiak publikoak izango dira, irakasle gelako begi-bistako toki batean jarriko dira eta hezkuntza-komunitateko edonorentzat eskuraerrazak izango dira.

#### **65. artikulua. Zaintzako irakasleak**

1. DOLORES IBARRURI BHI ikastetxean matrikulatuta dauden ikasle guztiez arduratzen da, eskola-jarduera osoan. Irakasle guztiek, euren kargu edo funtzioa kontuan izanik, ikasketa burutzaren agindupean, ikasleak begiratzen lagunduko dute.
2. Ikasketa burutzak egunean zehar sor daitezkeen gertaerei erantzuna eman ahal izateko beharrezkoak diren irakasleekin zaintza-sistema bat burutuko du. Zaintzen orduak irakasle bakoitzeko ordutegian agertuko dira.
3. Zaintzan dagoen irakasleen funtzioak gutxienez honako hauek izango dira:
  - a) Ikasketa burutzari irakasleen huts egiteak eta puntualitate faltak kontrolatzea eta komunikatzea, zaintza orriaren bitartez.
  - b) Irakaslea ez egoteagatik klase barik geratzen diren ikasleak zaintzea, baita atsedendietan ere. Era berean, liburutegian arduraren duen irakaslea falta bada.
  - c) Pasabideetan zein patioetan ordena zaintzea, eta orokorrean, zaintza txandan geletatik kanpo. Dena den, funtzio hau betetzeak ez du beste irakasle guztien lana ekidin behar.
  - d) Bere zaintzan sor daitezkeen gertaerei aurre egitea eta arazo larriren bat gertatuz gero, zuzenean zuzendaritza taldeari komunikatzea.
4. Zaintza-irakasleak faltako balira, eta hori dela eta, zaintzak ezin izango balira bete behar den moduan, ikasketa burutzak ikasleak zaintzeko neurri egokiak hartuko ditu. Horrelakoetan, ez dauden irakasleak ordezkatzeko beste irakasle batzuk izenda ditzake, salbuespenez, euren ordutegian libre dituzten orduak erabiliz.
5. Irakasleen zaintzak egiteko arauak DOLORES IBARRURIKO BHIko Bizikidetzaren Arauen barne egongo da.

#### **66. artikulua. Ordutegien publikotasuna**

Irakasleen ordutegiak irakasle gelan ikusgai jarriko dira eta hezkuntza-komunitateko edozein kidek eskura izango du. Ikastetxearen ordutegi orokorra beti ere irakasle gelan egongo da eta ikastetxera

datorren edonork eskura izango du leku publiko batean. Honek ikasleen taldeetako ordutegiak zehaztuko ditu eta bertan irakasleek familiei arreta egiteko orduak ere azalduko dira. Horretaz gain, liburutegiaren ordutegia eta orientabide departamentuak ikasleei eta familiei arreta egiteko duen ordutegia ere azalduko dira. Azkenik, idazkaritza eta atezaintzako ordutegiak ere egongo dira.

### III. KAPITULUA. ESKOLA-ZERBITZUAK

#### 67. artikulua. Liburutegi zerbitzua

1. Liburutegia ikasleen formakuntzari dagokionez lehen mailako baliabide gisa hartuko da. Liburutegian ikasleek zein irakasleek ikasi eta lan egin dezakete.
2. DOLORES IBARRURI BHIko zuzendaritzak liburutegiko arduradun gisa irakasle bat hautatuko du, bere jardun lektiboaren barruan dedikazioa izanik, eta hau kudeaketa zuzenaren, erosketen eta funtzionamendu onarekin zerikusia duten gaien arduraduna izango da.
3. Ikasketa burutza irakasleen beharrezko ordu osagarriak aurreikusiko ditu, liburutegia zabalik dagoen orduetarako.
4. Erabiltzaileentzako liburu mailegutza-zerbitzua eta liburutegiaren antolakuntzaren araudia klaustroak onartuko du, zuzendaritza taldeak proposaturik. DOLORES IBARRURI BHIko Bizikidetzara ARAUEN barne egongo da.
5. DOLORES IBARRURI BHIko zuzendaritzak, liburutegiko irakasle arduradunarekin adosturik, liburutegia zabaltzeko ordutegia eta egutegia zehaztuko du.

#### 68. artikulua. Jantoki zerbitzua

1. Jantoki zerbitzu osagarritzat hartzen da, derrigorrezko hezkuntzako ikasle eta familien eskaerei erantzun egokia eta eraginkorra eman nahi diona.
2. OOGk, jantoki batzordeak proposatuta, zerbitzuaren zenbait aspekturi buruzko araudia zehaztuko du, indarren dauden arauak kontuan hartuz: jantokiaren gehieneko kapazitatea txanda bakoitzeko mahaikideen kopurua zehaztuz, asteko zerbitzu egunak, zerbitzuaren ordutegia, antolakuntza arauak, funtzionamendua eta diziplina, onarpen irizpideak eskaria eskaintza baino altuagoa denean. OOGk araudi hau onartuko du eta DOLORES IBARRURI BHIko Bizikidetzara ARAUEN barne egongo da.
3. DOLORES IBARRURI BHIko zuzendaritzak ikastetxearen irakasleen artean bat hautatuko du jantokiaren arduraduna izateko.

#### 69. artikulua. Eskola-garraioaren zerbitzua

1. Eskola-garraioa zerbitzu osagarritzat hartzen da, derrigorrezko hezkuntzako ikasle eta familien eskaerei erantzun egokia eta eraginkorra eman nahi diona.
2. Ikastetxeko idazkaritza akademikoak eskola-garraioaren zerbitzua gainbegiratuko du, eta honek funtzionamendu onarekin zerikusia duten aspektuei buruzko araudia zehaztuko du, indarrean dauden arauak kontuan harturik. OOGk araudi hau onartuko du eta DOLORES IBARRURI BHIko Bizikidetzara ARAUEN barne egongo da.

#### 70. artikulua. Areto eta hornikuntzaren erabilera

1. DOLORES IBARRURI BHIko instalazio eta eraikuntzen erabilera zuzendaritza taldeak arautuko du eta bereziki, zuzendariak horren ardura izango du, IUPn azaltzen diren hezkuntza ekintzetarako,

ekintza osagarrietarako eta eskolaz kanpokoetarako. DOLORES IBARRURI BHIko instalazio eta eraikuntzetako materiala eta altzarien zaintzea erabiltzaile guztiei dagokie.

2. DOLORES IBARRURI BHIko instalazio eta eraikuntzen erabilera kasuetan, IUPn sartuta ez dauden ekintzetarako, maiatzaren 6ko 76/2008 Dekretuari eutsiko dio. Zuzendariaren ardurara izango da eskatutako ekintzarako onartzea edo erabileraren eskaeraren egokitasuna zehaztea, dagokion txostena idatziz. Bakarrik baimenduko edo era positiboan informatuko ditu ikastetxearen natura eta xedeen kontra egiten ez duten ekintzak. Edonola ere, partiduei, sindikatuak, izaera politikoa duten elkarteak erabilera ukatuko zaie, baita, zuzenean edo zeharka, ikastetxean bertan banaketak eta gaitzespenak sor ditzaketen talde eta elkarteak ere.

### **71. artikulua. Testuliburuaren eta Curriculum-Materialen Kudeaketa Solidarioa Egiteko Programa**

1. Testuliburuaren eta Curriculum-Materialen Kudeaketa Solidarioa Egiteko Programa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren ekimena da, Ikastetxeen Zuzendariaren eta Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendariaren Ebazpenaz arautua eta Programari borondatez atxikitzen zaien eta erabiltzeko eta kontserbatzeko arau batzuk betetzeko konpromisoa adieraziko duten familia guztiei testuliburuaren eta curriculum-materialaren erabilera solidarioa ahalbidetzen diona.

2. Programa DOLORES IBARRURI BHIko OOGak kudeatuko du eta ikasturte bakoitzean Programaren Batzorde Arduraduna sortuko du programaren garapena egiteko. Programa Ikastetxeko Urteko Planen barneratuko da.

3. Programari dagozkion OOGko funtzioak, Programaren Batzorde Arduradunaren osaketa eta funtzioak eta Programaren Funtzionamendurako Araudia DOLORES IBARRURI BHIko Bizikidetzaren Arauen barruan egongo dira eta OOGk onartuko ditu Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ezarritako araudia kontutan hartuz.

## **III. TITULUA. ERRENDIMENDU AKADEMIKOAREN EBALUAZIO OBJEKTIBOA**

### **72. artikulua. Printzipio orokorrak**

EEPLaren 16. artikuluan ezarritakoa betetze aldera, eta ikasleek beren errendimendu akademikoa objektiboki ebaluatua izatera duten eskubidea bermatze aldera, DOLORES IBARRURI BHIko gobernu organoak, koordinazio organoak eta irakasleek titulu honetan ezarri den berme-sistema aukeratu dute. Sistema horrek ondoko printzipio hauek ditu oinarri: publikotasuna, informazioa eta gardentasuna. Aipatu berri dugun sistemaren bidez, bidenabar, ikasleek azken notaren aurrean erreklamazioak egiteko aukera izango dute.

### **73. artikulua. Publikotasuna**

1. Ikasketaburuak bermatu beharko du ikasleek nahiz legezko haien ordezkariak ICP eskuratzeko duten eskubidea. Ikasleen eta beren ordezkarien eskura egongo den ICPn ondoko hauek ageri behar dira: arlo edo irakasgai bakoitzaren helburuak, edukiak eta berorietan landuko diren oinarriko gaitasunak.

2. Ikasketaburuak, halaber, bermatu beharko du departamentu didaktikoak eta irakasleek publiko egiten dituztela, batetik, arloak edo irakasgaiak gainditzeko eskatuko diren gutxiengo edukiak, bestetik, ebaluazio prozedura nahiz irizpide aplikagarriak eta, azkenik, berreskuratzeko egiteko nahiz laguntza eskaintzeko aurrekusi diren prozedurak.

3. Ikasketaburuak ziurtatuko du informazio hori guztia ikasle adingabeen gurasoei edota haien legezko ordezkariari heltzen zaiela.

#### **74. artikulua. Ikasleentzako eta gurasoentzako informazioa**

1. Ikasketaburuak bermatu behar du irakasleen eta ikasleen gurasoen edota ikasleen legezko ordezkarien arteko komunikazioa bitarteko arin eta egonkorren bidez gauzatuko dela. Zaindu behar du, halaber, ikasleen gurasoek edota ikasleen legezko ordezkariak irakaskuntzako eta ikaskuntzako jardueri nahiz eskola-errendimenduari buruzko informazio osoa eskuartean dutela.
2. Tutorearen betebeharrak bazter utzi gabe, irakasleek ezin diote uko egin ikasleei edo ikasleen legezko ordezkariari aurreko puntuan aipatutako alderdi orori buruz eskatzen duten informazio osoa emateari. Ikasketaburuak bermatu behar du irakasle guztiak egin behar hori betetzen dutela.
3. Ikasketaburuak ziurtatu behar du ikasleen irakasle-tutoreak beren taldeko ikasleen gurasoekin ikasturtean behin, gutxienez, bilduko direla batera. Bermatu beharko du, halaber, ikasleen gurasoen heren batek baino gehiagok eskatzen dituen bilerak egiten direla. Bilera horietan, goian aipaturiko alderdiak landuko dira, baita taldeko ikasleek alderdi horiek nola betetzen dituzten esan ere.
4. Ikasketaburuak ziurtatu behar du, honez gainera, DBHko tutoreak beren taldeko ikasle bakoitzaren gurasoekin ikasturtean behin, gutxienez, bilduko direla.
5. Aurreko puntuetan aipatu diren prozeduren bitartez igor daitekeen informazioaz gain, tutoreek ikasleen gurasoei edo legezko ordezkariari, ICPn ebaluazio-bilerak egiteko ezarri den gutxieneko aldizkakotasunez, ebaluazio-bileretan hitzartutako informazioa idatziz jakinaraziko diete. Gainera, hartu behar diren neurriak hartuko dira informazioa jaso behar dutenek jasotzen dutela ziurtatzeko.
6. Modu berean, ikasturteko azken ebaluazio-bileretan lantzen den informazioa igorriko du. Gutxienez, alderdi hauei buruzko informazioa emango da:
  - a) Etapako eta arloetako gaitasunen lorpen-maila.
  - b) Etapako eta arloetako helburu nagusien betetze-maila.
  - c) Irakasgaietako edukien barneratze-maila.
  - d) Nota partzialak edo ikaskuntzaren balorazioak.
  - e) Hezkuntza-neurri osagarrien aplikazioa, beharrezkoa izanez gero.

Aipatutako ikasturteko azken ebaluazio-bilerako txosten horietan, gainera, igarotzeko edo geratzeko erabakia arrazoitu beharko da. Tutoreak idatziko ditu, irakasle-taldearekin eztabaidatu ondoren, eta kontuan izan beharko ditu ikasleak programatutako helburuak lortu ez dituen arlo edo gai bakoitzari dagozkion irakasleek egindako proposamenak edo txostenak. Egindako txosten horiek, ikastetxean jasoko dira eta hurrengo kurtsoko edo etapako irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua orientatuko dute, irakasleek ikasgelako programazioak abiapuntu horretatik egokitu beharko dituztelarik.

#### **75. artikulua. Ebaluazio prozesua arautzea**

Ebaluazio prozesuaren printzipio eta baldintza orokorrak, hala nola, ebaluazio bilera eta proben gauzatzeari dagokiona, bere garapen zuzenarekin zerikusia duten aspektuen gaineko araudi zehatzaren arabera erregulatuko dira, indarrean dagoen araudiarekin konforme dagoen kalterik gabe. Araudi hau OOGk onartuko du, aurretik ikasketaburutzak proposatu duelarik eta DOLORES IBARRURI BHIko Bizikidetzaren Arauen barne egongo da.

#### **76. artikulua. Zuzendutako lanak, probak eta ariketak berrikustea**

1. Ikasleek eta, hala egokitzuz gero, gurasoek edota legezko ordezkariak ikasleen errendimenduaren ebaluazioan eragina izango duten lan, proba eta ariketa guztiak ikusteko aukera eduki ahal izango

dute. DBHn eta aurretik eskaera egin ondoren, behin ariketa guztiak zuzenduta eta nota jarrita, aipatu dokumentuen kopia edukitzeko eskubidea izango dute.

2. Ikasketaburuak ezarriko du kopiak eskatzeko orriek bete behar duten prozedura. Horretarako kontuan hartuko da ahozko eskabideek ahozko erantzuna jasoko dutela eta, aitzitik, idatzizko eskabideek idatzizko erantzuna. Prozedura hau OOGk onartuko du eta DOLORES IBARRURI BHIko Bizikidetzara Arauen barne egongo da.

3. Zuzenketa amaitutzat jotzeko ez da nahikoa izango kalifikazio kualitatiboa edo kuantitatiboa azaltzea; horrez gain, egindako akatsak edo hutsegiteak edo kalifikazioaren azalpen arrazoitua adieraziko da.

### **77. artikulua. Ariketa zehatzei jarritako kalifikazioen aurrean erreklamazioak egitea**

Ikasleek edo legezko beren ordezkariak, kalifikazioak jaso eta bi eskola-egun igaro aurretik, ahoz aurkez ditzakete alegazioak eta egindako lanak edo probak berraztertzeko eskatu ere. Alegazioak edo eskabideak irakasleari aurkeztuko zaizkio. Irakasleak, egoki baderitza, departamentu didaktikoari aholkua eska diezaiake auzia ebazteko. Horretarako, curriculum ofizialaz eta ICPz gain, departamentu didaktikoen programazioak, ikasgelako programazioak eta argitara eman diren kalifikazio-irizpideak lotesleak direla kontuan hartuko da.

### **78. artikulua. Ebaluazio partzialen aurrean erreklamazioak egitea**

1. Ikasleek, ahoz zein idatziz, zuzenean edo irakasle tutorearen bitartez, irakaslearen aurrean ebaluazio-aldi bakoitzari dagozkion erreklamazioak egin ditzakete 48 orduko epean, kalifikazioa jakin dutenetik zenbatzen hasita. Dagozkion irakasleak erreklamazioei guztiei erantzun beharko die, idatziz egindakoei idatziz, eta ahoz egindakoei ahoz. Horretarako, aurreko artikuluen azken paragrafoan zehaztutakoa hartu beharko du kontuan.

2. Erreklamazioa ezesten den kasuetan, ikasleek, ahoz zein idatziz, zuzenean edo irakasle tutorearen bitartez, departamentu didaktikoaren esku-hartzea eska dezakete 48 orduko epean. Departamentuak, proposatutako azterketa programazioarekin bat ote datorren egiaztatuko du, baita departamentuan erabakitako irizpideak zuzen ezarri ote diren ere, eta erreklamazioa egin duen irakasleari, ahoz edo idatziz, erreklamazioa egin den modu berean, erantzungo dio.

3. Ebaluazio partziala gauza arrunta denez, ezin izango da kalifikazioaren aurkako erreklamaziorik egin, nahiz eta irakasleak kalifikazioari eutsi departamentuaren irizpidearen aurka. Hala ere, irizpide hori kontuan hartuko da azken ebaluazioaren aurkako erreklamaziorik eginez gero erabakia hartzeko.

### **79. artikulua. Azken kalifikazioei buruzko erreklamazioa**

1. Ohiko eta ezohiko deialdien azken kalifikazioei buruzko erreklamazioa ikasketaburuari zuzendutako idatzi baten bidez aurkeztu beharko da idazkaritzan 48 orduko epean, kalifikazioak banaketa saioa egin duen unetik zenbatzen hasita.

2. Irakasleak, ikasketaburuak ezarritako ordutegian, berrikusketa saioa bat izango du. Saio honetan, irakasleak irakasleari, banan-banan, irakaslearen aburuz merezi duen kalifikazioa esan eta gero, irakaslearen onespeneko edo ezadostasuneko adierazpenak jasoko ditu eta aurretiaz jarritako kalifikazioa baieztatuko edo berrikusiko du bere iritzia araberan.

3. Ikaslea irakasleak ebazitakoarekin ez badago ados, 48 orduko epea izango du erreklamazioa egiteko, irakaslearekin berrikusketa saioa egin duen unetik zenbatzen hasita. Erreklamazioa egiteko, ikasketaburuari zuzendutako idatzi bat aurkeztu beharko dute idazkaritzan. Idatzi horretan, irakasleak ondoko hauek zehaztu behar ditu argi eta garbi: irakasleak jarri dion eta bere iritziz zuzena ez den

kalifikazioa, zilegi litzatekeen kalifikazioa eta ikasleak erreklamazioa egiteko dituen arrazoiak. Ikasleak, halaber, erantsi ahal izango ditu ariketa zehatzen edo ebaluazio partzialen kalifikazioen aurrean egin ziren eta bere garaian aldeko ebazpena izan ez zuten alegazioak edo erreklamazioak, betiere, ariketa zehatz edo ebaluazio partzial horiek azken ebaluazioko emaitzaren gain eragina izan badute.

4. Ikasketaburuak dagokion departamentu didaktikoari aurkeztuko dio erreklamazioa. Departamentuak erreklamazioa aztertuko du. Hartara, proba proposatuak ikasgaiaren programazio onartuarekin bat datozen erabakiko du, baita ebaluazio-irizpide hitzartuak zuzen aplikatu diren ere. Departamentuak erabakiko du irakasleak jarritako kalifikazioarekin ados dagoen ala ez. Erabaki hori hartzeko, kontuan hartu beharko ditu ebaluazio partzialetan egindako erreklamazioei buruz igorri diren txostenak. Kontuan izango du erreklamatzaileraren antzerako egoeran dauden ikasleei irakasleak zer kalifikazio jarri dien.

5. Departamentu didaktikoak bi eguneko epean hartu beharko du erabakia, erreklamazioa idatziz egiten den egunetik zenbatzen hasita.

6. Departamentu didaktikoak bere erabakiaren berri emango dio ikasketaburuari. Azken horrek interesdunari helaraziko dio departamentu didaktikoaren erabakia.

7. Ikaslearen erreklamazioa balioesten bada, ikasketaburuak haren berri emango dio zuzendariari. Zuzendariak, horrenbestez, agiri akademikoan dagokion zuzenketa egingo du.

## **80. artikulua. Ikastetxe kanpoko eskaeren aurreko erreklamazioak**

Barneko erreklamazio prozesua bukatu ondoren eta ikastetxean deialdi arrunt eta ez ohiko deialdiaren kontrako erreklamazioak erabakirik, ikasleek, gurasoek edo legezko ordezkariak eta irakasleek, desadostasunean egotekotan, 48 orduko epean erreklamazioa aurkeztu dezakete ikastetxeko zuzendaritzaren aurrean. Ondoren, Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzara eramango da bere ebazpenerako.

## **81. artikulua. Kalifikazioak justifikatzen dituzten agiriak gordetzea**

1. Ikasturteko edozein unetan probak, lanak eta ariketak aztertu ahal izateko, irakasleek ikastetxean izango dituzte agiri guztiak, eskola-garai osoan eta, gutxienez, ikasturteko azken ebaluazioa egin ondoren erreklamazioak egiteko dagoen epea amaitu eta hiru hilabete bitartean. Ikasleen deialdi arrunt eta ez ohiko deialdien azken probak, dagozkien departamentuan gordeko dira urte bitartean.

2. Epe hori amaitu ondoren, agiriak sunsituko dira edo ikasleei eman, beti ere erreklamazio baten ondoren erabakia hartzeko beharrezkoak ez badira. Ondorio horietarako, kontuan hartu beharko dira bai erreklamazioan aipatu diren ariketak, baita ikasleak edo erreklamatzailerak aldarrikatzen duen kalifikazio bera izan duten ikasleen ariketak ere.

3. Edonola ere, erreklamazio bati buruzko erabakia hartzeko kontuan hartu beharreko ariketak edo agiriak gorde egin beharko dira, horiei buruzko erabaki administratiborik edo ekintza judizialik egin daitekeen kasuetan.



## IV. TITULUA .BIZIKIDETZA ARAUTZEA

### I. KAPITULUA. PRINTZIPIO OROKORRAK

#### **82. artikulua. Bizikidetzaren oinarriak**

DOLORES IBARRURI BHIren ustez, bizikidetza bermatzeko, batetik, hezkuntza-komunitate osoak ikasleen eskubideak errespetatu eta babestu behar ditu ezinbestean eta, bestetik, ikasleek beren eskubideak eta eginkizunak arduraz bete behar dituzte, titulu honetan ezartzen denarekin bat etorritik. DOLORES IBARRURI BHIk bereganatzen ditu ere, bizikidetzaren erreferentzia gisa, indarrean dagoen legeriaren irakasle eta ikastetxeko langileen eskubideak eta betebeharrak.

#### **83. artikulua. Urteko bizikidetza plana**

DOLORES IBARRURI BHIk bizikidetza-plana idatziko du, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak xedatzen duenarekin bat. Bizikidetza planaren helburu nagusia bizikidetzan gerta daitezkeen gatazkak prebenitzea da. Gatazkarik gertatuz gero, beroriek nola ebatzi aurreikusiko da. Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren bitartez, aukerako zenbait bide ezarri ziren hainbat jardura eta neurri aplikatzeko. Hartara, gatazkak ebazteko, aipatu berri dugun Dekretuaren bidez ezarri ziren neurriak aplikatuko dira. Horretarako, beharrezko balitz, bitartekaritza-prozedurak erabil daitezke. IUPren barne egongo da eta OOGk onartuko du.

#### **84. artikulua. Eskubideen berehalako babesa**

Ikasleek abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuko 6. artikulutik 21. artikulura bitartean jaso diren eskubideak izango dituzte. Irakasleren batek ikusten badu ikasleren baten jokabidea arestian aipaturiko eskubideen kontra doala edo eskubide horiek betetzea galarazten duela, esku hartu beharko du berehala. Jokabide okerra izan duen ikaslea ahoz ohartarazi beharko du eta, ondoren, ikasketaburuarengana joateko agindu.

#### **85. artikulua. Betebeharrak betetzeko bermea**

Ikasleek abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuko 21. artikulutik 27. artikulura bitartean jaso diren betebeharrak bete beharko dituzte. Irakasleren batek ikusi badu ikasleak ez dituela bere betebeharrak bete, haren jokabidea zuzendu beharko du berehala. Horrez gain, irakasleak uste badu ikasleak bere jokabideaz hezkuntza-komunitateko beste kide batzuen eskubideak urratu dituela, ikasketaburuarengana joatea aginduko dio.

### II. KAPITULUA. IKASLEEN ESKUBIDEAK BETETZEKO BERMEA

#### **86. artikulua. Irakasleek ikasleen eskubideak babesten laguntzea**

DOLORES IBARRURI BHIko irakasle guztiek abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren bidez ikasleei aitortu zaizkien eskubideak babesten lagunduko dute. Horretarako, araudi honetan eta aginte-organoen jarraibideetan zehaztutakoari jarraituko diote.

#### **87. artikulua. Segurtasunarekin lotura duten eskubideak zaintzea**

1. Tutorek nahiz gainerako irakasleek hautematen badute ikasleren bat tratu txarrak jasotzen ari dela edo, eskubideen eta betebeharren Dekretuko 7.2 eta 7.3 artikuluetan aurreikusitakoarekin bat, adingabekoren bat arriskuan edo babesik gabe dagoela, ikasketaburua edo zuzendaria jakinaren gainean jarriko dute.



2. 3/2005 Legearen arabera, otsailaren 18koa, Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko: hezkuntza-zentroetako titularrek eta langileek adingabeen babesaren arloan eskumena duten herri-administrazioei edo, beharrezkoa bada, Fiskaltzari edo epaileari jakinarazi behar dizkiete hurrenganako tratu txarrak, haurren babesgabetasuna edo horien arrisku-egoera ekar dezaketen egitateak, eta halaber adierazi beharko dizkiete horrelakoetan behar diren esku-hartzeak eraginkorrak eta kalitatezkoak izango direla bermatzeko behar diren datu guztiak; orobat, elkarlanean aritu beharko dute horrelako egoerak eragozteko eta konpontzeko, baina betiere adingabeen lehentasunezko interesak edukiko dira kontuan.

Horretarako "Hezkuntza-arloko prebentzio- eta jardun-protokoloa, gerta daitezkeen haurren eta nerabeen babesgabetasun, tratu txar, sexu-jazarpen eta sexu abusu egoerentarako, eta hezkuntza-arloaren eta adingabeak babesteko esku hartzen duten agenteen arteko lankidetzeta eta koordinaziorako" dokumentua erreferentzia gisa hartuko da.

3. Irakasleek berdinkideen arteko tratu txarrak prebenitu edo ahalik eta lasterren hauteman behar dituzte. Tratu txarren arrastorik antzemanaz gero, zuzendaritza taldea jakinaren gainean jarriko du berehalakoa, egoki diren protokoloak aplikatu daitezkeen.

4. Ikasketaburuak zenbait irakasle, begien bistaz ikasle guztiak kontrolatzeko bezainbat, izendatuko ditu ikasleen jarduna jolas-orduan zaindu dezaten. Irakasleek jolas-orduan ikasleen jarduna zaintzea nori dagokion jakin behar dute. Irakasleek bertatik bertara egon behar dute eta uneoro ikasleei begira egon. Zuzendariak jolas-orduan zenbait toki erabiltzea debekatu dezake, irakasleen zainketa zailtzen badute.

## **88. artikulua. Ondra, intimitatea eta irudi propioa babesteko eskubidea**

1. Irakasleek nahiz hezkuntza-komunitateko gainerako kideek haien ondra, intimitatea eta irudi propioa babesteko eskubidea dute. Horrenbestez, DOLORES IBARRURI BHIko aginte-organismoek, tutoreek eta irakasle guztiak babestu beharko dute ikasleen nahiz hezkuntza-komunitateko kideen eskubide hori. Zuzendaritza taldeak zenbait arau proposatuko dizkio OOGri grabatzeko bideen, sakelako telefonoen eta, oro har, teknologia berrien erabilerari buruz. OOGk, bere aldetik, arau proposatu horiek onartu ala ez aztertuko du. Aipatu berri ditugun arauen bidez, ikasgelan grabazioak egitea, argazkiak ateratzea eta sakelako telefonoa erabiltzea galarazita egongo da. Hauek DOLORES IBARRURI BHIko Bizikidetzeta Arauen barne egongo dira.

2. Ikasgelatik kanpo, hau da, eraikinean edo eskola-barrutian, aipatu berri ditugunak erabiltzea baimentzen bada, egoki izan daitezkeen muga guztiak proposatu daitezke. Batera zein bestera, debekaturik egongo da hezkuntza-komunitateko kideren bati bere baimenik gabe argazkiak ateratzea edo hura filmatzea. Debekatuta egongo da ere hezkuntza-komunitateko kidearen baimenaz atera den argazkia edo egin den grabazioa interesdunaren baimenik gabe erabiltzea.

## **89. artikulua. Biltzeko eskubidea**

1. DOLORES IBARRURI BHIko aginte-organismoek ziurtatuko dute biltzeko eskubidea, Legeak ikasleei aitortzen diena, modu eraginkorrean gauzatzen dela. Biltzeko eskubidearekin erlazionatutako alderdi guztiak zainduko dituzte. Alde horretatik, biltzeko eskubidea gauzatzea hezkuntza helburuekin bat datorrela eta adinez txikikoen babeserako Legeak ezartzen dituen aginduekin bat datorrela bermatuko da.

2. Ikasle talderen batek bilera ospatzeko deialdia egin nahi badu, eskaera bete behar izango du eta zuzendaritza taldeari aurkeztu. Bertan bileraren arrazoia, gaia eta bilera eskatzen dutenen izenak idatzi beharko dituzte.

3. Zuzendaritza taldeak erabakiko du, deialdia egin dutenekin batera, bileraren ordua, eguna eta egingo den lekua. Dena dela, bilera klasez kanpoko orduetan izango da eta soilik eskaeraren arrazoiaren larritasunak eskatuko balu, klaseko orduetan egitea hausnartuko litzateke klaseak erabiltzen; bilera ospatuko den atsedenaldiaren aurretik edo ondoren.
4. Ordezkarien batzordeak, egoki jotzen duenean, ikasle ordezkatuei kontsulta egitea erabaki dezake. Horretarako, ordezkarien batzordeak ikasketaburuari baimena eskatuko dio, eta horrek, gai-zerrenda irakurri ondoren eta bertako gaiak ordezkarien batzordearen eskumenekin duten egokitzapen-mailaren arabera, baimena emango du ala ez du emango. Horrez gain, aurreko bileretan gai-zerrenda errespetatu ez bada, baimena ukatu dezake. Ikasketaburuaren erabakiaren aurka erreklamazioa aurkez daiteke zuzendariaren aurrean.
5. Bileren deialdia ikasle guztiei jakinaraziko zaie ikasleen ordezkarien bitartez, bileraren aurreko egunean. Gai-zerrendaren berri ere emango zaie. Bileretara joatea ez da inoiz derrigorrezkoa izango.
6. Ikasketaburuak, bilera non eta noiz egin erabakiko du. Dena dela, bilera klasez kanpoko orduetan izango da eta soilik eskaeraren arrazoiaren larritasunak eskatuko balu, klaseko orduetan egitea hausnartuko litzateke klaseak erabiltzen; bilera ospatuko den atsedenaldiaren aurretik edo ondoren.
7. Hezkuntza-komunitatearen beste edonork eskubide hau erabiltzeko dagokion baimena zuzendaritza taldeari eskatu beharko dio eta eskatzaileen izenak, bileraren arrazoia eta gaia adierazi beharko du. Zuzendariak natura eta ikastetxeko helburuen kontra ez doazen bilera orok onartuko ditu. Dena dela, bilera egiteko aukera ukatuko du ospakizunak ikastetxean baztertzek eta erdibitzeak eragin ditzakeenean, zuzenean edo zeharka.
8. Edozein bilera egin eta gero, gai ordena eman beharko diote zuzendaritza taldeari, bertan deialdia egiten dutenen izenak eta etorri direnen kopurua agerraraziko dituzte.

## **90. artikulua. Taldeak eskoletara ez agertzeari buruzko arauak**

Indarrean dagoen legearen arabera, 201/2008 Dekretuan, 13. artikuluan, 3. atalean, DBHko hirugarren mailatik gorako ikasleek eskoletara bertaratzeari buruz hartzen dituzten erabaki kolektiboak ez dira jokabide desegokitzat, bizikidetzaren aurkako jokabidetzat edo bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidetzat hartuko, betiere biltzeko eskubidea baliatuta hartu badira eta aldeztu aurretik ikastetxeko zuzendaritzari jakinarazi bazaizkio, arau hauei jarraiki:

- a) Biltzeko eskubidea baliatuta eskoletara ez agertzearen aldeko deialdia egin nahi dutenek, beren inizatibaz edo elkarteren batek luzatutako deia jarraituz, ez bertaratzeko proposatutako eguna baino 72 ordu lehenago zuzendaritzan eskatu beharko dute ordezkarien batzordea biltzeko baimena.
- b) Proposatutako ez agertze eguna baino, gutxienez, 48 ordu lehenago ordezkarien batzordearen bilera egingo da. Bilera honetan deialdiaren arrazoiak eta bere aurrean dauden jarrera desberdinak jasotzen dituen agiri bat idatzi beharko dute. Bileraren akta, partaideen oharpenarekin, zuzendaritzara eramango dute esandako epea baino lehen.
- c) Aipatutako eguna baino 48 ordu, gutxienez, lehenago eta egun horretako 10:45 aurretik gelaz gelako asanblada egingo dute. Asanblada horretan eta dagokion irakaslearen aurrean, delegatuek idatzitako agiria irakurriko dute, deialdiaren arrazoiez eztabaidatuko dute eta bozketa egingo dute. Bozketa aurretik, ordezkariek ikasketa burutzan hartuko duten aktan emaitzak jasoko dituzte. Akta hori taldearen ordezkariek eta une horretan gelan dagoen irakasleak izenpetuko dute. Urrats hauek bete eta berehala ikasketa burutzara eraman beharko dute akta.
- d) Botoak zenbatu ondoren, bozketaren emaitzak argitara emango dira institutuko atarian eta irakasle gelan. Ez agertzearen aldeko emaitza suertatuz gero, horren berri ematen duen familientzako ohar bat

prestatuko du zuzendaritzak, ikasleen bidez helaraziko diena. Ohar honetan, aipatutako Dekretuaren 14. artikulua 3. paragrafoak esaten duenez, DBHko adin gutxiko ikasleek guraso edo legezko ordezkarien baimen idatzia beharko dute. Baimen hori deitutako ez agertze eguna baino, gutxienez, 24 ordu lehenago tutoreei emango diete. Egun horretan baimenik gabe institutura ez etortzea hutsegite ez justifikatuztat hartuko da.

e) Deialdiarekin bat datozen ikasleek eta familiaren baimena izango dutenek edo adin nagusikoak izango direnek ez dute zertan etorri beharko Institutura eskola jasotzera. Institutura etorriko diren ikasleek eskola izango dute, deialdiak lagunduko duen normaltasunez, dagokien irakasleen edo, behar izanez gero, zaintza daukatenen ardurapean.

f) Edonola ere, aurreikusitako azterketak mantendu egingo dira jarritako orduetan.

### **91. artikulua. Idatzizko adierazpen askatasunaren eskubidea betetzea**

1. Zuzendariak edo, haren lekuan, ikasketaburuak arautuko du idatzizko adierazpen eskubidea gauzatzeko modua, espazioak eta lekuak. Edozein kasutan, erakundeekiko eta hezkuntza-komunitateko kideenganako errespetua kontuan hartu beharko da.

2. Informazioa, zuzendariak baimendutakoan, araututako lekuetan baino ezin izango da kokatu. Zuzendaritzaren erabakiarekin ados ez egotekotan erabakia OOGk hartuko du. Dena dela, erabakia premiazkoa izanez gero, zuzendariak OOGko batzorde iraunkorra deituko luke erabakia har dezan; beti OOGren pean.

3. Edonola ere, informazioa jendarteratzeko dauden lekuetan eta espazioetan jartzen den informazio orotan, informazioaren erantzule den pertsonaren, erakundearen, elkartearen zein taldearen izena eta argitalpen data agertu beharko dira.

4. Informazioa agerian egon ahal izango da hamabost egunetan, iraunaldi handiagokoa izan ezik. Epe hau pasatu ondoren edo indarrean egongo ez denean arduradunek kenduko dute. Horrela egin ezean, horretarako, zuzendariak baimendutako pertsonak egingo dute.

5. Aipatu arauak errespetatzen ez dituzten informazioak kendu egingo dira, zuzendariaren edo ikasketaburuaren aginduz.

6. Gelen barruan eskolako jardueri buruzko informazioa bakarrik jar daiteke.

7. Institutuaren egoitza mugatzen duen hesian ezin izango dira kartelak edo pankartak jarri. Horrelakoa gertatuz gero, zuzendaritzak kenduko du ahalik eta azkarren.

8. Institutuaren izenean edo bere baitan dagoen edozein talderen izenean bultzatutako eta sinadura bilketa pertsonalizatua atxikitako idazkietan adin gabeko ikasleen sinadurak gurasoen edo tutoreen baimena, kasu bakoitzerako, behar izango du, norbaitek idazkiak institututik aterako dituenean.

## **III. KAPITULUA. BETEBEHARRAK BETETZEKO BERMEAK**

### **92. artikulua. Printzipio orokorra**

1. Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak zenbait betebeharrak ezarri dizkie ikasleei. Ikasleek betebeharrak ezin izango dituzte, gutxienez, jokabide okertzat hartuko da beti. Hutsegite hori, halaber, bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabide edo bizikidetzaren kontrako jokabide izan daiteke, baldin eta haren bidez hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak betetzea galarazten bazaie, edota hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak zuzenean urratzen badira.

2. Betebehar horiek betetzen ez direla ikusten duen irakasleak esku hartu beharko du derrigor. Horrenbestez, bizikidetzarekin bat ez datorren jokabidea zuzendu beharko du, betiere, arestian aipaturiko Dekretuan nahiz araudi honetan ezarritakoarekin bat etorriz.

### **93. artikulua. Zuzendu beharreko jokabideak**

Ahalik eta lasterren zuzendu behar dira 201/2008 Dekretuak okertzat jo dituen jokabide guztiak, baita bizikidetzaren kontrakoak edo bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkietenak ere. Ahal den heinean, neurri zuzentzaileek zuzendu beharreko jokabidearekin lotura izan behar dute, hainbestekoa non zuzendu beharreko jokabidearen ondorioztat har daitezkeen.

### **94. artikulua. Jokabide desegokiak**

1. Jokabide desegokitzat arestian aipaturiko Dekretuaren 30. artikuluan aipatu direnak hartuko dira.
2. DOLORES IBARRURI BHIIn, arestian aipaturiko Dekretuan jaso denaren arabera, ikaslea une horretan babespean duen irakasleak zuzenduko ditu jokabide desegokiak.
3. Ikasketaburuak ezarriko du jarraitu beharreko prozedura. Prozedura hori indarreko arauekin bat etorriko da beti. Era berean, jokabidea zuzentzeko ahozko ohartarazpena baino zerbait gehiago aplikatu behar bada, halaxe jakinarazi beharko zaio ikaslearen tutoreari.

### **95. artikulua. Bizikidetzaren kontrako jokabideak**

1. Bizikidetzaren aurkako jokabideak eskubideen eta betebeharren Dekretuko 31. artikuluan aipatzen direnak dira.
2. Bizikidetzaren aurkako jokabiderik hautematen duen irakasleak, lehenik, aurkako jokabidea izan duen ikaslea ahoz ohartaraziko du. Ondoren, ikasketaburuarengana edo haren ordezkorengana joatea aginduko dio. Azkenik, ikasketaburuak eta zuzendariak zehaztu duten prozedurari jarraiki, gertakarien eta jokabide okerra zuzentzeko berehala egin duenaren berri emango du.

### **96. artikulua. Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak**

1. Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak eskubideen eta betebeharren Dekretuko 32. artikuluan aipatzen direnak dira.
2. Bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidearen lekuko izan den irakasleak, lehenik, ahoz ohartaraziko du bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea izan duen ikaslea. Ondoren, ikasketaburuarengana edo haren ordezkorengana joatea aginduko dio. Azkenik, ikasketaburuak eta zuzendariak zehaztu duten prozedurari jarraiki, gertakarien nahiz jokabide okerra zuzentzeko berehala egin duenaren berri emango du.

### **97. artikulua. Bizikidetzaren aurkako jokabideak eta hari kalte larria eragiten diotenak zuzentzeko prozedura**

Bizikidetzaren aurkako jokabideak eta hari kalte larria eragiten diotenak zuzentzeko, abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuan aurreikusi dena aplikatuko da. Gatazka ebazteko, 201/2008 Dekretuko III. kapituluan aurreikusi diren aukerako bideak erabili behar dira.

#### IV. KAPITULUA. BIZIKIDETZA BEHATOKIA

##### 98. artikulua. Bizikidetza behatokiaren ezaugarriak eta osaera

1. DOLORES IBARRURI BHIko bizikidetza behatokia, institutuko bizikidetza kudeaketaren organo arduraduna da. Bere helburua erlazio positiboak sustatzea eta bizikidetza osasuntsua eraikitzea da. Bizikidetza planaren jarraipena eta ebaluaketaren osaketa eta martxan jartzea bultzatzen du.

2. Bizikidetza behatokia ikastetxeko OOGren menpe dago eta bere kideak OOGk aukeratuko ditu, zuzendariak proposaturik, hezkuntza-komunitatea osatzen duten elkarte desberdinetatik, OOGko kideei lehentasuna emanez. Hau horrela izanda, horrela banatzen da:

- a) Zuzendaria, bizikidetza behatokiaren burua izango dena.
- b) Ikasketaburua.
- c) Orientabide departamentuko ordezkari bat.
- d) Ikastetxeko bizikidetzaren koordinatzailea, aurreko puntuetan adierazitako pertsonenatariko bat ez ba. Kasu horretan, irakasle bat izango zen. Dena den, pertsona hau idazkaria izango zen.
- e) Irakasleen ordezkari bat.
- f) Familien bi ordezkari.
- g) Ikasleen bi ordezkari.
- h) AZParen bi ordezkari.
- i) Abanto-Zierbenako Udaleko ordezkari bat.

##### 99. artikulua. Bizikidetza behatokiaren funtzionamendu-erregimena

1. Bizikidetza behatokia kurtsoan zehar lau aldiz bilduko da gutxienez; kurtso hasieran, urteko bizikidetza plana osatzeko helburuarekin, 1. eta 2. hiruhilabetekoen bukaeran (planaren jarraipena) eta kurtso bukaeran, azken ebaluaketa eta memoria osatzeko. Ikastetxeko bizikidetzaren koordinatzaileak bilerarako deialdia egingo du, baita berak dinamizatu ere.

2. Bizikidetza behatokiak kurtso bukaeran bizikidetza planaren txosten bat egingo du, kurtsoko azken memorian erantsi egingo dena. Bertan, ikasleen gurasoen elkarteek, ikasleek, irakasleek eta OOGk egokiak direla uste duten hobetzeko proposamenak gehituko dira.

3. Ikasturte bakoitzaren hasieran, bizikidetza behatokiak bizikidetza plana berrikusiko du, ikastetxeko bizikidetza egoeraren bilakabidea aztertzeko eta horrekin batera, aurreko kurtsoan batu ziren hobetzeko proposamenak gehituko dira. Gainbegiratutako bizikidetza plana IUPren barne egongo da eta OOGk onartuko du.

##### 100. artikulua. Bizikidetza behatokiaren betekizunak

DOLORES IBARRURI BHIko bizikidetza behatokiak funtzio hauek ditu:

- a) Bizikidetza planaren osaketa eta martxan jartzea eta ondoren, bere jarraipena eta ebaluaketa bultzatzea.
- b) Hezkuntza-komunitatearen kideen proposamenak eta iradokizunak batzea eta behar bezala bideratzea erlazioak hobetzeko, gatazkak aldarazteko eta bizikidetza osasuntsu baten aurreratzeko.
- c) Hezkuntza-komunitatearen, bereziki ikasleen parte hartze aktiboa indartzea.

- d) Hezkuntza-komunitateari erlazio positiboak bultzatzen dituzten ekintzak proposatzea.
- e) Ikastetxeko Bizikidetza Araudia aztertzea, bai agerikoa AJAn eta Bizikidetza Arauetan, bai idatzia ez dena. Honen diagnostikoa egin eta hobetzeko prozesuak gehitzea.
- f) Zentroko eguneroko bizitzaren gatazka eta beharren aurrean bideratzeko eta kudeatzeko protokoloak proposatzea.
- g) Inguruko beste erakundearekin elkarlana bultzatzea, bizikidetza positiboa eta kooperazio kultura sustatzeko.
- h) Institutuan burutzen diren jokabide guztiak beharren betetzean, eskubideen ariketa zuzena, tolerantzia, errespetua eta bizikidetza laguntzen dutela bultzatzea. Honekin batera, OOGri ikastetxeko bizikidetza hobetzeko egokiak diren neurriak proposatzea.

## V. KAPITULUA. BIZIKIDETZA ARAUAK

### 101. artikulua. DOLORES IBARRURI BHIko Bizikidetza Arauak

1. DOLORES IBARRURI BHIk, ikastetxeko Bizikidetza Arauak hartuko ditu. Hauek AJAren garapena izango dira, bizikidetzarekin eta instalazioen erabilerarekin erlazionaturik dauden aspektuetan.
2. Bizikidetza Arauen osaketa eta aldaketak zuzendaritza taldearen menpe egongo dira. Zuzendaritza taldeak egokiak direla uste dituen laguntzak izango ditu, irakasleen klaustroena batez ere.